KONTZEJUPETIK
OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA
2025 / Azaroa / 362. zenbakia
www.oñati.eus

‘Emozioak’

Musika bandaren kontzertu denboraldia aurkeztu dute

Lehenengo emanaldia azaroaren 16an izango da

362. zkia
2025eko azaroa

Azaroan hasiko dira Mendiko Kaleko eta San Lorentzoko 11. areako urbanizazioak berritzeko lanak

> Mendiko Kaleko esku-hartzeak **271.795** euroko aurrekontua du eta 4 hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko

> San Lorentzoko lanek **700.275** euroko aurrekontua dute eta 12 hilabeteko epean burutzea aurreikusten da

Iñigo Ruiz, Hirigintzako zinegotzia, eta Izaro Elorza, alkatea, planoei begira Mendiko Kalen

PLATAFORMA BAKARRA
Galtzada eta espaloiak kota berean dituen plataforma bakarra eratuko da kale osoan. Zoladura berritu egingo da, bai galtzadan eta baita espaloietan ere, eta egun fatxadetara lotuta dauden hariak lurperatu egingo dira.

ARRAPALA ETA ESKAILERA
Kalearen amaieran dagoen eskailerari zati bat kenduko zaio, irisgarritasun arauetara egokitutako arrapala egin ahal izateko. Eskailera ere berritu egingo dute.

Azaroarekin batera hasiko dira Mendiko Kaleko urbanizazioa berritu eta, bide batez, irisgarritasuna hobetu, oinezkoen eta auto gidarien segurtasuna eta erosotasuna areagotu, eta kalearen estetika edertzea helburu duten lanak.

Udalaren eskariz LKS Ingeniaritzak idatzitako proiektuaren arabera, galtzada eta alde bietako espaloiak kota berean dituen plataforma bakarra egokituko da kale osoan, eta zorua guztiz berrituko da; bidean dagoen asfaltoaren ordez hormigoi armatuzko zoladura jarriko da, gainazalean harrizko lauzen moldeaz inprimatutako hormigoia duela, eta espaloietan *Ecogranic* motako aurrefabrikatutako lauza berriak ipiniko dira. Eta kalearen amaieran dagoen eskaileraren zati bat kendu egingo da, arrapala berria egin eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko.

Horrez gain, egun fatxadetara lotuta dauden argiteria eta tele-komunikazio hariak lurperatu egingo dira, eta ur hornidura eta euri-uren sareak ere egokitu eta berritu egingo dira.

"Errekalde auzoa erdigunearekin modu irisgarrian lotzea aspalditik zuen jasota Udalak bere planean, eta orain urrats hori gauzatzeko unea iritsi da. Nahiz eta gaur egun bide irisgarria egon badagoen, ez da Mendiko Kaletik pasatzen, eta horrek berebiziko garrantzia du auzoaren eguneroko funtzionamenduan", adierazi du Iñigo Ruiz udaleko Hirigintza batzordeko buruak. "Kale historikoa izanik, urteetan zehar

hainbat lan puntual egin dira, bereziki azpiegituretan; oraingoan, ordea, esku-hartze sakonagoa egingo da. Gainaldea berrituko bada ere, lanen zatirik handiena lur azpian egingo da, azpiegiturak eguneratzeko beharra handia baita. Helburua kale irisgarri, segurua eta atsegina sortzea da, bertan bizi direnen kalitatea hobetzeaz gain, bertatik igaroko diren herritar guztien ongizatea sustatzeko", gaineratu du Ruizek.

Lanak Construcciones Artzamendi enpresak egingo ditu 271.795 eurotan (+BEZ), eta 4 hilabeteko epean obra amaituta egotea aurreikusten da.

SAN LORENTZOKO 11. AREA

Azaroan zehar hasiko dira baita ere San Lorentzoko 11. Areako lanak. Ondoko argazki eta planoan erakusten den moduan, auzuneko ipar-ekialdeko eremua hartzen du 11. areak, ermitatik gorako aldea, 39-40 eta 65-66-67 etxe-blokeen arteko eremua, hain zuzen ere.

Egingo den esku-hartzearen helburua da goian aipatutako eremu horretako urbanizazioa berritzea, oinezkoen ibilbide guztiak irisgarritasunari buruzko araudi aplikagarrira egokitzeko, edota hori guztiz bideragarria ez den kasuetan, egungo egoera nabarmen hobetzeko.

Udalaren eskariz ***A2B Arquitectos*** enpresak idatzitako proiektuaren arabera, espaloiak zabaldu, oinezkoen ibilbideen jarraikortasuna bermatu, gehiegizko pendizak leundu, aldapa dagoen tokietan eta eskailera guneetan eskudelak ipini, plataforma erako zebrabideak egokitu eta mugikortasun mugatua duten pertsonentzako aparkalekuak egokituko dira. Gainera, zoladura berritu eta ikusmen arazoa duten pertsonen orientazioa errazteko zola bereziak ipiniko dira.

Bestalde, urbanizazioa berritzeko lan hauek baliatuz, ur saneamendu sarea eta argindar nahiz telekomunikazio azpiegiturak hobetzeko lanak ere egingo dira.

"Azken urteotan hainbat esku-hartze egin dira San Lorentzo auzoan, eta oraingo jarduketak beste urrats garrantzitsu bat dakar auzoko irisgarritasuna hobetzeko prozesuan", adierazi du Iñigo Ruizek; "San Lorentzo auzo handia da, herritar asko biltzen dituena eta adin zein profil askotarikoak hartzen dituena. Hori dela eta, beharrezkoa da esku-hartzeak modu planifikatuan eta faseka gauzatzea. Proiektu honekin urrats esanguratsua egingo dugu auzoko irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko bidean"

Lanak Construcciones Artzamendi enpresak egingo ditu 700.275 eurotan (+BEZ), eta 12 hilabeteko epea aurreikusten da lan guztiak burutzeko.

San Lorentzoko eta Mendiko Kaleko proiektuak Oñatiko udalak azken urteotan irisgarritasunarekin duen konpromisoaren isla direla adierazi du Izaro Elorza alkateak. "Orain arteko bidetik jarraitzen du udal gobernuak. Oro har, asmoa du esku-hartze integralen bidez denondako izango den Oñati bat eraikitzea. San Lorentzo eta Mendiko Kaleko irisgarritasun lanekin udal gobernuak berretsi egiten du herri osoan irisgarritasuna eta inklusioa sustatzeko konpromisoa". ▪

> **San Lorentzo eta Mendiko Kaleko esku-hartzeekin udal gobernuak berretsi egiten du herri osoan irisgarritasuna eta inklusioa sustatzeko konpromisoa**
>
> IZARO ELORZA ARREGI
> Alkatea

> **Mendiko Kalen esku-hartze sakona egingo da. Gainaldea berrituko bada ere, lanen zatirik handiena lur azpian egingo da, azpiegiturak berritzeko beharra handia baita**
>
> IÑIGO RUIZ BARRON
> Udaleko Hirigintza batzordeko burua

Goiko orto-argazkian eta beheko planoan erakusten den moduan, San Lorentzoko ermitatik gorako gunean, 39-40 eta 65-66-67 zenbakidun etxe-blokeen arteko urbanizazioa berrituko da, oinezkoen ibilbideak irisgarritasun arauetara egokituz.

362. zkia
2025eko azaroa

Udalak bi lursailen lagapena egin dio **Tokixan** elkarteari hamar urterako

Irabazi asmorik gabeko elkartea da **Tokixan**, elikadura burujabetzaren alde lanean diharduena eta, ildo horretan, nekazaritza-sektoreko belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko oinarriak jarri nahi dituena

San Martin Fundazioaren jabetzakoak diren Zubillagako Erguña Etxeberria baserria eta bere jabetzako lurzatia, eta garai bateko Exibai baserriaren jabetzako lur-sailaren erabilera ***Tokixan*** irabazi-asmorik gabeko elkarteari lagatzea onartu zuen udalbatzak irailaren 25eko plenoan.

Zehazki, 7. poligonoko 180. partzela eta 10. poligonoko 100. partzela (3 hektarea inguru, guztira) eta Erguña Etxeberri baserriaren erabilera dira lagatzen direnak, *Tokixan* elkarteak garatu nahi duen proiektua abian jartzeko. Jabetza ez da lagatzen, erabilera baizik, baina ***Tokixan***-ek egin asmo dituen inbertsioen amortizazioa eta lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta, lagapenaren iraupena 10 urtekoa izango da.

Oñatiko udalbatzaren ustez, udalerriko biztanleen mesederako izango dira ***Tokixan***-ek lursail horietan garatu nahi duen proiektuaren helburuak. "Hitzarmen honi esker, aurreko legealdian Oñatiko elikadura sistemaren inguruan egindako azterketan identifikaturiko lau ekintza edo erronka nagusietako biri helduko diegu: ekoizleendako test-guneak sortzea eta errelebo aldaketarako bitartekoak eskaintzea. Gainera, Debagoiena mailako sarea da Tokixan, eta, elikadura burujabetzaren bidean, eragile desberdinen arteko elkarlana oinarri, asmoa da beste lurralde batzuetan erreplikagarri izango den eredu bat sortzea, agroekologian oinarriturikoa", azaldu du Izaro Elorza alkateak.

Bide horretan, Oñatin jarri nahi dute ***Tokixan*** proiektuaren ekoizpenerako lehen espazioa. Horretarako hitzarmena sinatu du Udalarekin, bi lur-sailen lagapenerako. Garatu nahi den proiektuak lau hanka izango ditu: formakuntza, jarraipena eta babes sarea, test-gunea, eta lur zein baliabideen bankuaren kudeaketa.

Izaro Elorza, Oñatiko alkatea eta San Martin Fundazioko lehendakaria, eta Dorleta Elkorobarrutia, Deba Garaia Landa Garapena elkarteko eta Tokixan-eko lehendakaria, Erguña Etxeberri baserriaren aurrean.

EAJren udal taldeak lur-sailen lagapenaren aurkako botoa eman zuen urriko osoko bilkuran. Jeltzaleek argi utzi dute proiektua interesgarria dela eta babestu egiten dutela, baina ez dutela argi ikusten lagapen horren truke San Martin Fundazioak izan duen onura, erakundearen estatutuetan zehazten den bezala. Gobernu taldeak erantzun zuen, esanez, lur-sailen eta eraikinaren erabilerak berak ondarearen mantentzea dakarrela.

UDALAK LAGAKO DITUEN LUR-SAILAK

• **Ezkerrean** Zubillagako Erguña Etxeberri baserria eta bere jabetzeko lursailaren zati bat. Eraikineko gune bat ere erabiliko da, besteak beste, langileentzako, formakuntzarako eta barazkiak bildu zein garbitzeko gune gisa. Neguan egokituko dituzte azpiegiturak, eta 2026ko uda-udazkenerako jarriko dituzte martxan ekoizpena eta formazio ikastaroa.
• **Eskuman**, Usako gainaldean dagoen lur-saila, garai bateko Exibai baserriaren jabetzakoa. Zubillagako prestakuntza eta ekoizpen gunea martxan jarri ostean erabakiko dute nola antolatu eta zein azpiegitura egokitu partzela honetan.

▲ Oñatiko Udala, Fagor, Biolur, Debagaraia Landa Garapena Elkartea, Bergarako Ereindajan, eta Gizabidea fundazioak osatzen dute Tokixan egitasmoa koordinatzeko talde eragilea (Arg.: Goiena)

Tokixan

elikadura burujabetzarako bidean, eredu agroekologikoa eta kolektiboa sustatuz

• SORRERA ETA MISIOA

'Debagoiena 2030' sarearen baitan egindako gogoeta baten ondoren sortutako ekimena da ***Tokixan***. Elikadura burujabetzarako bidean, elikagaien ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu agroekologiko eta kolektiboa sustatzea du helburu, elikadura sistema jasangarriago eta erresilenteago baten oinarriak finkatuz.

• ETORKIZUNA, AGROEKOLOGIKOA ETA KOLEKTIBOA

Horretarako, lehen sektorearen beheranzko joerari eta errelebo faltari erantzuteko bide berriak eta estrategiak garatzea da ***Tokixan***-en erronka nagusietako bat. Ildo horretan, bideragarria izango den eta lan baldintza duinak bermatuko dituen proiektu kolektiboen eredua sortzeko pausuak eman nahi dituzte.

• PRESTAKUNTZA ETA EKOIZPENA

Ildo horretan, Oñatiko Udalak lagako dizkion Erguin Etxebarri eta Usakoko lur eremuetan formakuntza eta ekoizpenerako guneak martxan jarriko ditu ***Tokixan***-ek, ekintzailetza agroekologikoa eta kolektiboa sustatzea helburua izanik, bideragarritasuna eta lan baldintza duinak oinarri dituen eredu kolektiboa sortzeko pausoak emanez.

Urtarrilean Erguin Etxebarri baserriko lurrak garbitu eta instalazioak (negutegiak, ureztatze sistema...) berritzen hastea da asmoa; ondoren ekoizpena martxan jarriko dute, eta udazkenean lehen formakuntza zikloa hasiko da. Hurrengo urtean, 2027an, Usakoko lur-saila egokitu, ekoizpena martxan jarri, eta formazioa osatu duten pertsonentzako test-guneak egokituko dira bertan. 2028an Zubillaga eta Usakoko ekoizpena %100ean martxan egongo da, eta bigarren formakuntza eta instalazio zikloa abiatuko da. Hau da, Oñatiko lurrak eredu agroekologiko eta kolektiboa diseinatu, esperimentatu eta hedatzeko guneak izango dira, ekoizpen esperientzia erreal baten gainean.

• KONTSUMOA ETA BANAKETA

Elikadura kate osoa (ekoizpena, banaketa, transformazioa eta kontsumoa) barnebilduko duen eredua sustatu nahi du ***Tokixan***-ek. Banaketa eta kontsumoari dagokionez, urtebeteko esperientzia pilotua egin da Fagor Ederlanek Bergaran duen lantegiko jangelan, eta 2026an Fagor enpresako beste jangela batera zabaltzeko asmoa dago. Etorkizunera begira, eskualdeko enpresa, ikastetxe edota egoitzetako jangelak hornitzea da helburua, ahalik eta produktu bertakoena eta ekologikoena kontsumitzeko. Jangela kolektiboetara ez ezik, otarren bidez edota salmenta puntu fisikoetan ere banatuko litzateke ekoizpena.

• LANKIDETZA OINARRI

Elikadura burujabetzan pausuak emateko, herri eta eskualde mailako marko publiko-komunitarioak garatzea estrategikoa izango da. Ildo horretan, egitasmo honen koordinazio eta garapenerako talde eragile bat sortu da –Oñatiko Udala, Gizabidea, Fagor, Biolur, Debagaraia Landa Garapena Elkartea eta Bergarako Ereindajan-ek osatua–, egitasmo honen koordinazio eta garapenerako. Ildo horretan, ***Tokixan***-ek formakuntza eta instalazio-prozesu egituratu bat eskaintzeaz gain, aholkularitza, mentoretza eta bere eskura dituen bestelako baliabideak jarriko ditu profesionalki lehen sektorean aritu nahi duten pertsona edo taldeen eskura. ▪

HARREMANETARAKO: xirrika.onati@gmail.com / 688 785 247

XIRRIKA
SEXOLOGIA ZERBITZUA
SERVICIO DE SEXOLOGÍA

Tratu onetan eta plazerean ahalduntzeko aholkularitza eskaintzen du Udalak, herritar guztiei irekia

> Zerbitzua dohainik da, eta aurrez-aurrekoa edo online bidezkoa izan daiteke

Udaleko Berdintasun sailak XIRRIKA sexologia zerbitzua eskaintzen du 12 urtetik gorako herritar guztiei zuzendua. Helburua, sexualitatean eta tratu onetan ahalduntzea da. Etor zaitez bakarrik, bikotean edo taldean. Hauek dira bertan jorratu eta landu daitezkeen gaietako batzuk:

- **Norbere gorputza ezagutu, onartu eta maitatzen ikasi.**
- **Askotariko bizi-aldaketa garaietan harremanei eta plazerari arreta jarri: hilekoan, menopausian, haurdunaldian, erditu ostean, lagundutako ugalketa prozesuetan, gaixoaldietan, migrazio prozesuetan...**
- **LGTBIQ+ identitate, desio eta plazeraren inguruan jakin-nahia asetu**
- **Adin txikikoen sexualitatearen akonpainamendua egiteko orientazioa**
- **Bikote-eztabaidak, jeloskorkeriak, banaketa-prozesuak kudeatu.**
- **Bizitza erotikoaren abentura bizi, errutinatik atera.**
- **Maskulinitatearen, zuritasunaren edo gorputz normatibodunen pribilegioak landu harremanetan.**
- **Interneten erabilera plazererako. Aukerak eta segurtasun neurriak.**

OÑABIKE
est. 95
oñabike.com
Otadui 25, Oñati 943 780 565

» NAHIA ALKORTA ELEZGARAI

"Askotan amatasunak bakardadera eramaten gaitu, eta horregatik garrantzitsua da espazioak sortzea elkarri laguntzeko"

Amatasuna da ikasturte honetako Emakumeentzako Jabetze Eskolan jorratuko den gaietako bat. '**Amatasunean bidelagun**' izeneko tailer bat eta gaiarekin lotutako hiru hitzaldi antolatu dira. Nahia Alkortak (Zizurkil, 1986) gidatuko ditu bai tailerra eta baita hitzaldiak ere. Alkortak '*Sabeletik mundura*' izeneko proiektua sortu zuen 2012an, eta orduz geroztik baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, gurasotasunak informatuak, feministak, errespetuzkoak eta ahaldunduak izan daitezen. 2023an zeresan handia eman zuen '*Mi parto robado*' liburua argitaratu zuen, bere lehen erditzean eta ondorengo bide judizialean jasandako diskriminazioa salatuz.

'*Amatasunean bidelagun*' izenburua duen tailerra antolatu da Jabetze Eskolaren baitan. Zein helbururekin?

Helburu bikoitza dauka. Alde batetik, saretzea, garrantzitsua delako amatasuna bezalako esperientzia batean berdinen arteko espazioak edukitzea elkarri laguntzeko.

Eta, bestetik, ahalduntzea. Askotan amatasunak eramaten gaitu bakardadera, apur bat etxekotu egiten gaitu, eta horregatik garrantzitsua da espazioak sortzea, gertatzen zaiguna ulertzeko, eta jendartean eragiteko.

Zein gai jorratzen dituzue?

Batzuetan, hitzaldietan landutako gai zehatzak ('Gurasoen arteko erantzukidetasuna', 'Indarkeria gineko-obstetrikoa...) lantzen ditugu. Eta beste batzuetan, taldeak proposatzen dituen gaiei edo jendeak dituen kezkei heltzen diegu. Azkeneko saioan, adibidez, identitateaz aritu ginen; hau da, zer gertatzen den gure identitatearekin ama bihurtzen garenean; ze arantza sortzen diren, ze aldaketa gertatzen diren eta nola kokatu dena jendartean.

Urriko hitzaldian gurasoen arteko erantzukidetasuna lortzeko gakoez aritu zinen. Zer nabarmenduko zenuke?

Gehien agertu zen gaia zama mentalarena izan zen. Gaur egun, agian, apur bat hobeto banatzen ditugun arren, oraindik ere zama mentala bereziki amengan egoten den ardura bat da; guztiaren logistika buruan edukitze horrek sorrarazten duen zama.

Bestetik, zaindua izatearen gaia ere atera zen; alegia, zaintzara begira dagoen ama hori zaindua izatearen behar hori ez dela ikusten. Beraz, etxeko logistika hori hobeto antolatzeko eta hobeto banatzeko estrategiez aritu ginen, eta, egia esan, oso saio aberasgarria izan zen.

Aste honetako (azaroak 4) hitzaldian indarkeria gineko-obstetrikoaz aritu zara. Zergatik, zehazki, indarkeria mota honi buruzko hitzaldi bat?

Batetik, azaroaren 25aren bueltan indarkeria horri tokia egin nahi izan zaiolako. Azkenean, badelako indarkeria matxistaren adierazpide bat, eta oso normalizatuta dagoen indarkeria bat da. Bere gain hartzen ditu, batetik, ahozko tratu txar hori, baina baita ere infantilizazioa, baita ere mehatxuak edo koakzioak, eta oso ohikoak dira horiek haurdunen kontsultetan, abortuetan... Gainera, askotan, beharrezkoak ez diren interbentzioak egiten dira.

Orduan, tratu txar fisikoa eta emozionala biltzen dituen indarkeria bat da, oso normalizatuta daukaguna eta kontsultetan oso ohikoa dena. Eta askotan gu geu gara identifikatzeko gai ez garenak. Ginekologo edo matronaren lehenengo kontsultatik gertatu daiteke, eta bizitza erreproduktibo osoan ematen den zerbait da.

Orduan, hori ikusaraztea garrantzitsua da. Batetik, prebentzioa lantzeko gazteekin, eta, bestetik, bizi izan duten horiek ere espazio bat izan dezaten horretaz hitz egiteko.

Abenduaren 2an izango da hirugarren hitzaldia: '*Amatasunak zeharkatzen dituzten indarkeriak*'. Zeri buruz hitz egingo duzu?

Emakumeen aurkako indarkeriaz berba egiten dugunean denok ikusten dugu indarkeria bikarioa, indarkeria matxista eta agerikoagoak diren biolentzia motak. Baina *iceberg*-ean behera egiten badugu, beste indarkeria mota batzuk agertzen zaizkigu: Indarkeria judiziala, arrazismoa, aparofobia, eta baita indarkeria bezala identifikatzen ez ditugun etxe barruko beste dinamika batzuk ere.

Beraz, saiatuko gara indarkeria handi horietatik txikietara joaten, bakoitzak bere hausnarketa egin dezan, eta hortik abiatuta, ahalduntzea lantzen hasteko. Normalean, indarkeria bat dagoenean, diskriminazio egoera bat da, baina askotan ez gara horretaz jabetzen. Orduan, biolentzia mota horiek ikusarazi, ahaldundu eta saihesteko moduak jorratuko ditugu. Ziurrenik, guztiok identifikatuko dugu batenbat edo momenturen batean indarkeria horietakoren baten biktima izan garela, eta hori ikusaraztea garrantzitsua da.

Gustatuko litzaidake belaunaldi arteko emakumeak etortzea, gaztetxoak eta emakume helduak. Dena den, hitzaldia irekia da eta interesa duen edozein herritar izango da ongi etorria. San Juan Kaleko lokalean izango da hitzaldia, 17:00-19:00. ▪

Abian da, berriro ere, Debagoieneko Energia Bulegoa

> Argindarraren edota gasaren fakturaren inguruko informazioa eta aholkularitza emango die herritarrei

Udako geldialdiaren ondoren, berriro ere martxan da Debagoieneko Energia Bulegoa, herritarrei informazioa eta aholkularitza emateko prest. Argindarraren edota gasaren fakturaren inguruko informazioa emango zaie herritarrei, baita elektrizitate eta gasaren merkatu arautu zein librearen gaineko xehetasunak ere.

Horrez gain, datu historikoetan oinarrituz, hornidura puntu bakoitzari dagokion potentzia elektriko optimoa aztertzea; etxean instala daitezkeen energia berriztagarrien inguruko informazioa ematea; etxebizitzaren birgaitze energetikoari buruzko gaietan aholkatzea, eta laguntza ekonomikoak lortzeko aukeren informazioa ematea (bonu sozialak, GLL eta bestelakoak) dira bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuetako batzuk.

Era berean, bulegotik gogorarazi nahi da, orokorrean, neguan energiaren prezioek gora egiten dutela, eta komenigarria dela elektrizitate eta gasaren kontratuen inguruko informazio eguneratua izatea. Bereziki komeni da jakitea zein motatako kontratua daukan bakoitzak. Gasaren kasuan, merkatu arautuko Azken Aukerako Tarifa ATT (edo *Tarifa de Ultimo Recurso* TUR) da gomendagarria; izan ere, administrazio publikoak hiru hilero finkatzen du tarifa. Elektrizitatearen kasuan, aldiz, aldeak ez dira hain nabarmenak izaten.

Kontratu motaz gain, kontuan izan beharreko beste kontu bat da elektrizitateak negu garaian hartzen duen prezioa. Azken urteko datuetan oinarrituta, udako prezioekin alderatuta, garestiagoak izan ohi dira eta horrek hilabete amaieran ordaintzen den elektrizitatearen faktura igo dezake. Beheko taulan ikus daitezke egunez

▼ Argindarraren bataz besteko prezioa egunez egun

Eguna	URRIA	AZAROA	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
1	98 €	82 €	127 €	101 €	95 €	66 €	59 €	13 €	19 €	111 €	65 €	31 €
2	94 €	92 €	143 €	134 €	125 €	66 €	28 €	11 €	31 €	100 €	37 €	61 €
3	58 €	73 €	140 €	122 €	133 €	97 €	22 €	16 €	52 €	91 €	30 €	55 €
4	99 €	109 €	133 €	112 €	143 €	96 €	11 €	11 €	59 €	100 €	66 €	56 €
5	60 €	117 €	135 €	51 €	118 €	79 €	24 €	11 €	60 €	72 €	57 €	55 €
6	22 €	117 €	118 €	45 €	139 €	78 €	27 €	10 €	72 €	56 €	78 €	27 €
7	55 €	112 €	37 €	83 €	118 €	49 €	56 €	19 €	50 €	60 €	84 €	32 €
8	31 €	117 €	22 €	99 €	105 €	15 €	48 €	17 €	38 €	45 €	74 €	76 €
9	25 €	110 €	67 €	87 €	110 €	47 €	32 €	18 €	62 €	90 €	62 €	64 €
10	76 €	91 €	134 €	112 €	140 €	93 €	19 €	9 €	100 €	107 €	55 €	52 €
11	91 €	78 €	139 €	96 €	133 €	97 €	18 €	2 €	74 €	98 €	80 €	54 €
12	70 €	64 €	147 €	74 €	120 €	93 €	27 €	22 €	62 €	76 €	90 €	73 €
13	53 €	106 €	144 €	126 €	131 €	112 €	18 €	41 €	70 €	65 €	101 €	61 €
14	104 €	119 €	129 €	138 €	121 €	58 €	25 €	31 €	57 €	84 €	97 €	49 €
15	87 €	125 €	103 €	141 €	90 €	49 €	12 €	12 €	22 €	83 €	69 €	67 €
16	49 €	112 €	121 €	135 €	88 €	61 €	12 €	5 €	52 €	102 €	74 €	73 €
17	51 €	114 €	122 €	136 €	138 €	89 €	22 €	11 €	94 €	103 €	69 €	86 €
18	52 €	136 €	113 €	133 €	80 €	58 €	12 €	7 €	106 €	95 €	97 €	97 €
19	49 €	133 €	76 €	125 €	124 €	29 €	2 €	13 €	116 €	50 €	78 €	90 €
20	45 €	96 €	115 €	145 €	88 €	23 €	11 €	13 €	113 €	27 €	68 €	66 €
21	94 €	78 €	95 €	141 €	48 €	11 €	49 €	20 €	77 €	58 €	54 €	42 €
22	80 €	120 €	54 €	135 €	71 €	11 €	64 €	3 €	67 €	82 €	54 €	35 €
23	87 €	78 €	47 €	141 €	66 €	29 €	44 €	5 €	111 €	84 €	63 €	52 €
24	70 €	11 €	74 €	92 €	79 €	44 €	44 €	7 €	97 €	46 €	62 €	46 €
25	64 €	82 €	101 €	43 €	95 €	42 €	46 €	6 €	81 €	42 €	92 €	79 €
26	50 €	143 €	134 €	26 €	105 €	36 €	6 €	17 €	93 €	39 €	88 €	92 €
27	78 €	136 €	134 €	22 €	120 €	55 €	11 €	27 €	93 €	32 €	88 €	72 €
28	76 €	132 €	133 €	16 €	111 €	26 €	18 €	28 €	68 €	34 €	54 €	49 €
29	73 €	127 €	136 €	49 €		4 €	6 €	35 €	71 €	32 €	46 €	59 €
30	83 €	124 €	141 €	42 €		3 €	32 €	44 €	111 €	40 €	53 €	83 €
31	101 €		136 €	96 €		29 €		40 €		64 €	37 €	
BTZBST	69 €	104 €	111 €	97 €	108 €	53 €	27 €	17 €	73 €	70 €	68 €	61 €

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAKO
Garbitasunaren usaina

653 70 45 47
Oñati

MIREN UGARTE
Fisioterapia

Etxez-etxeko tratamendua
· Neuroerreabilitazioa
· Heldu nagusiak
· Traumatologia

Arreta pertsonalizatua eta eguneroko beharretara egokitua
T. 609 589 843 · miren.fisioterapia@gmail.com

egun elektrizitateak markatu zuen bataz besteko prezioa, 2024ko urritik 2025 iraila arte.

Edozein kasutan, energia bulegotik horren guztiaren gaineko informazioa eman nahi da herritarrak ahalik eta informatuen egon daitezen. Zerbitzua doakoa eta ibiltaria da, eta horretarako hurrengo kanalak daude eskuragarri:

- **747 48 51 47** telefono zenbakira deituta.
- *energiabulegoa@debagoiena.eus* helbidera mezu bat bidalita.
- Webgunetik *energiabulegoa.debagoiena.eus*

AURREZ AURREKO ARRETA OÑATIN

- **Asteazkenetan (9:00-14:00)**
- **Bidebarrieta 24, behea**

ENERGIA BULEGOAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

- Hornidura puntu bakoitzari dagokion potentzia elektriko optimoa aztertzea
- Etxean instala daitezkeen energia berriztagarrien inguruko informazioa
- Etxebizitzaren birgaitze energetikoari buruzko gaietan aholkatzea
- Laguntza ekonomikoak (bonu sozialak, GLL...) lortzeko aukeren gaineko informazioa ematea
- Elektrizitate eta gasaren kontratuen inguruko informazio eguneratu ematea
- ...

Kargagailu elektrikoak instalatu ditu Udalak lurrazpiko aparkalekuetan

> Launa karga puntu ipini ditu Zubikoa eta Kalegoienako parkinetan

Oñatiko Energia Planean jaso ziren zortzi egitasmoetatik bat da auto elektrikoentzako karga puntuak instalatzea, eta, ildo horretan, lehen urratsa eman du jada Udalak, launa kargagailu ipini baititu kiroldegiko eta Kalegoienako lurrazpiko aparkalekuetan. Ekitermik kooperatibak egin ditu kargagailuak instalatzeko lanak 37.826 eurotan. Instalazioa eginda dago, eta azken probak eta doiketa lanak egin ostean, azaroan zehar jarriko dituzte erabilgarri.

Zubikoako aparkalekuan instalatu duten kargalekuetako bat

Eguzki plaka gehiago ipiniko ditu Udalak kiroldegiko teilatuan

Zubikoa kiroldegiko kantxa urdineko teilatuan lehendik dauden 104 panel fotovoltaikoak berrantolatu eta eguzki plaka gehiago jartzea erabaki du Udalak. Zehazki 55,68 kw-ko potentzia duen instalazio berria egokituko da bertan, Ekitermik idatzitako proiektuaren arabera. Horniketa eta instalazio lanak Ekilor Energías Renovables enpresak egingo ditu ia 55.000 euroren truke. Gogoratu, iaz 125,12 kwp-ko azpiegitura fotoboltaikoa instalatu zuela udalak kantxa berdearen teilatuan.

Euskaltegiko bi irakasle plaza betetzeko deialdia egin du udalak

Bi baldintza nagusi bete behar dira hautaketa prozesura aurkeztu ahal izateko: unibertsitate graduko titulazioa edo baliokidea edukitzea, eta euskarari dagokionez, 4. hizkuntza-eskakizuna edo pareko maila. Azaroaren 21era arteko epea dago izena emateko.Udalaren webgunean kontsulta daiteke deialdia aratuko duen baldintza zerrenda osoa.

BESTE DEIALDI BATZUK

Lanbide-ren 'Enplegua sustatzeko toki ekintzetarako 2025eko deialdia'ren baitan, **Kultura sustatzaile** eta **Lurralde antolaketako administrazio orokorreko teknikari** lanpostua betetzeko deialdia egin du Udalak. Izena emateko azken eguna azaroaren 10a da eta Lanbideren web ataritik egin behar da. Bestalde, **Eltzia** kultur elkarteak **koordinazio eta dinamizazio arduraduna** kontratatu nahi du. Lanaldi erdiko kontratua eta 1000 €-ko soldata gordina eskaintzen da. Bidali curriculumak ***ekt.eltzia@gmail.com***-era, azaroaren 17a bano lehen.

MARIJO ETXEGOIEN ARZUAGA / EAJko legebiltzarkidea

"Oraintxe hasi naiz legebiltzarkide lanaz gozatzen"

Duela urtebete hartu zuen legebiltzarkide kargua, GBBko buru izendatu zuten Maria Eugenia Arrizabalaga ordezkatuz

EAJren Gipuzkoako zerrendako 10. tokian aurkeztu zen 2024ko apirileko hauteskundeetan, baina jeltzaleek 9 ordezkari lortu zituztenez, legebiltzarreko atean geratu zen Marijo Etxegoien Arzuaga (Oñati, 1974). Handik hilabete gutxira baina, Joseba Egibarren deia jaso zuen, Gipuzko Buru Batzarreko buru izendatu zuten Euge Arrizabalagaren tokia betetzeko eskatuz. Urte gogorra izan dela aitortu digu, martxan doan tren batera igotzea bezalakoa izan delako. Legebiltzarkide akta jaso eta hilabetera osoko bilkura aretoko tribunan zegoen etxebizitzari buruzko Arartekoaren txosten bati erantzuten. Zorionez, poliki-poliki badoa ardura berriei neurria hartzen, eta oraintxe hasi omen da legebiltzarkide karguaz disfrutatzen. EAJk dituen 27 legebiltzarkideetako bat da. Zuzenbidean lizentziaduna da Etxegoien, eta Masterra Gizonen eta Emakumeen Berdintasunean. Iazko urrira arte Emakunden ziharduen, lege aholkulari lanetan.

Nola jaso zenuen legebiltzarkide izateko proposamena?

Ustekabe handia izan zen. Iazko Oñatiko jaiak amaitu eta astebetera Joseba Egibarrek deitu zidan. Euge Arrizabalagak legebiltzarrean utziko zuen lekua betetzea proposatu zidan, zeina, ondoren, GBBko buru izateko aukeratua izan zen. Ustekabea, erantzukizuna, ardura, beldurra, zalantzak... dena etorri zitzaidan gainera bat-batean. Lehenengo hilabeteak oso gogorrak izan ziren. Gainera, akta jaso eta hilabetera tribunara igo behar izan nuen etxebizitzaren inguruan Arartekoak egindako txosten baten inguruan gure alderdiaren ikuspuntua azaltzera. Nik pentsatzen nuen denboratxo bat edukiko nuela poliki-poliki ikasten eta ohitzen joateko, baina, bai zera!

Aurretik Oñatiko udaletxean zinegotzi izana zara hiru agintalditan (2003-2007 eta 2015-2023). Esperientzia horrek ez al du laguntzen?

Oso desberdinak dira. Legebiltzarra oso-oso zurruna da. Batzorde bakoitzak dauka bere presidentzia-mahaia, bere legelaria, eta prozedura administratiboak zorrotz bete behar dira, berme guztiekin jardun ahal izateko. Oñatikoa bezalako udaletxe batean aldiz, malgutasun handiagoz jokatzen da. Gainera, udaletxean jorratzen diren gaiak ezagunagoak dira, gertuagotik bizi dituzu, eta batzordeetan lasai berba egiten duzu, giro onean, normalean. Baina hau oso bestelakoa da, oso protokolarioa da eta politikak pisu handiagoa du; aldiz, udaletxe batean politika baino gehiago herrigintza egiten da

Egia da, taldekide beteranoagoak, aholkulariak eta gure taldeko bozeramailea –Joseba Diez Antxustegi– beti laguntzeko prest egoten direla, baina, hala ere, lan eta ardura handia da.

Zorionez, poliki-poliki banoa neurria hartzen, eta pittin bat disfrutatzen ere hasita nago. Gusturago nabil orain, bai, baina urduritasun puntu bat beti egoten da, eta uste dut beharrezkoa dela, gainera, izan ere erantzukizun handia dugu, eta, guztiaren gainetik, errespetua zor diegu herritarrei eta instituzioari. Hori oso presente daukat beti.

Udaletxe batean politika baino gehiago herrigintza egiten dela esan duzu, baina legebiltzarkide izateko badirudi profil politikoagoa behar dela. Zuk ba al duzu bokazio politiko hori?

Ez dakit bokazioa den, baina nik uste dut aitarengandik jaso nuela politikarako zaletasuna.

Beti izan naiz PNVkoa. Lagun batek esan izan dit txantxetan, nire DNA/ADNan hiru hizki horien ordez PNV jarri behar lukeela. Nik argi izan dut beti abertzalea naizela, bakezalea naizela, euskaltzalea naizela, eta alderdikoa. Horrekin ez dut esan nahi gure alderdia perfektua denik, baina eskatu didatenean beti egon naiz laguntzeko prest.

Legebiltzarrean 20 batzorde daude. Horietako zenbatetan zaude zu?

Lau batzordetako kide naiz: '*Mugikortasun Jasangarria*', '*Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Hiri Agenda*', '*Berdintasuna eta Garapenerako Lankidetza*', eta '*Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa*'. Azken honetan, batzordeko buru edo lehendakaria naiz.

Zein da legebiltzarkide baten egunerokoa?

Ez daukagu ordutegi zehatz bat bete beharrik, baina ni neu behintzat egunero etortzen naiz legebiltzarrera. Lege, plan eta txosten asko irakurri eta landu behar izaten ditugu. Eguerdi edo arratsaldera arte egoten naiz bertan, eta, gero, kanpoko hainbat ekitalditara ere (aurkezpenak, bisitak, ekitaldi protokolarioak...). Agenda bat egoten da eta banatu egiten gara taldekideen artean. Hau ez da lan fisikoa, baina ordu asko sartu behar izaten ditugu.

Legebiltzarreko dinamikari dagokionez, batzordeetara joan beharra daukagu, jakina, eta baita asteroko pleno eta hamabostean behingo kontrol saioetara ere.

Bestalde, GBBko Debagoieneko koordinatzailea ere banaiz, eta horrek ere bere dedikazioa eskatzen du, bilerak herri bakoitzeko zerrendaburuekin, Uri Batzarrekin, eta asteroko GBBko batzarra.

Herritarren artean bestelako pertzepzioa ere egoten da, alegia, legebiltzarkideek ez dutela lan askorik egiten eta, aldiz, pribilegio ugari dituzuela. Ba al dago halakorik?

Pribilegioak? Ordenagailu bat, telefono bat eta legebiltzarrean aparkatzeko leku bat. Ekitaldiren batera joateko gonbidapena ere jasotzen dugu noizbehinka –ni, adibidez, *Maspalomas*-en estreinaldian izan nintzen Zinemaldian–. Ekonomikoki ere ondo baloratuta dago eta lehen esan dudan moduan, egunero fitxatu beharrik ez daukagu, baina horrek bere ifrentzua ere badu, askotan egun osoan telefonoaren menpe egon behar duzulako, eta astelehenetik domekara! Pribilegio batzuk baditu, hori hala da, baina dedikazio handia eskatzen du. Askotan gustura egingo nieke uko pribilegio horiei asteburuan etxean lasai egotearren.

Besteak beste, etxebizitza gaietarako batzordean zaude, eta horixe da, hain zuzen ere, herritarren kezka nagusia azken Euskobarometroaren arabera. Ba al duzue ezer esku artean?

Eusko Jaurlaritza etxebizitza arloan premiazko neurriak ezartzeko lege bat atera nahi du aurrera, eta hori da mahai gainean dugun gai nagusi eta premiazkoenetako bat. Horregatik, uztailean lanean egon gara legebiltzarrean –normalean langabea edo inhabila izaten da-, aditu ezberdinen agerraldiak entzuten, lege hori ahalik eta azkarren onartzeko helburuarekin.

Laburbilduz, etxebizitzak bizkorrago eraikitzea eta alokairu-merkatua babestea helburu duten neurri sorta onartu nahi da: besteak beste, sustapen berrietan babes ofizialeko etxebizitzen ehunekoa %75etik %60ra murriztuz. Horri esker, etxebizitza-parkea handitu ahal izango da eta aukera gehiago izango dira, baita libreak, baita babestuak. Ez da ahaztu behar, azken inkesten arabera, gazte gehienek etxebizitza erosteko asmoa dutela.

Horrez gain, hirigintza-izapideak arindu nahi dira, administrazio-epeak laburtuz, eta babestutako etxebizitzetarako lurzoru-erreserba estrategikoa sortu nahi da, besteak beste.

Zein da legebiltzarrean egin duzun lehen urte honetako balantzea?

Oso aberasgarria. Pilla bat ikasten ari naiz. Lehen hilabeteak zailak eta gogorrak izan dira, baina pozik nago urrats hau eman eta beldur horiek gainditzeko gai izan naizelako.

Baina, esan dudan moduan, errespetuz jokatuz beti ere, garbi izanda herri ordezkari bat naizela, eta hankak lurrean edukita. Garbi daukat zein izan behar den nire lanaren ardatza eta tinko mantendu beharreko baloreak. Orain arteko balorazioa positiboa da, gogoz nago lanean jarraitzeko, eta orain nahi nuke gero eta gehiago disfrutatzen hastea. ▪

Goian, Marijo Etxegoien legebiltzarreko tribunan berbetan. Beheran, osoko biilkura aretoko ikuspegia

Politikarako zaletasuna aitarengandik jaso nuen. Argi izan dut beti abertzalea naizela, bakezalea, euskaltzalea eta alderdikoa

Oso garbi daukat herri ordezkaiak garela eta, guztiaren gainetik, errespetua zor diegulako herritarrei eta instituzioari

362. zkia
2025eko azaroa

GANDIAGA OROITUZ hitzez eta kantuz

Bitoriano Gandiagaren heriotzaren 25. urteurrenaren harira, haren ibilbidearen errepasoa egingo du **Gontzal Mendibil**ek, Ainhoa Tabuyo abeslaria, Jose Luis Canal piano-jolea eta Angel Unzu, gitarra- eta buzuki-jolea, lagun dituela

Azaroaren 8an, Arantzazuko Kriptan (10:30)

2026an Bitoriano Gandiagaren heriotzaren 25. urteurrena beteko da eta, horren harira, 'Ezagutu Arantzazu' ekimenaren baitan hainbat jarduera antolatzen ari dira Arantzazuko Adiskideen Elkartea eta bertako frantziskotarrak, Debagoieneko Turismo informazio zentroaren eta Oñatiko udalaren laguntzarekin. Hala, irailaren 27an 'Gandiagaren Arantzazu' hitzaldia eman zuen Paulo Agirrebalzategik, eta hitzaldiaren amaieran ***ezagutu.arantzazu.org*** plataforma digitala aurkeztu zuten (ikusi eskumako orrian), Gandiagaren bizitza eta lanari buruzko hainbat dokumenturekin.

GONTZAL MENDIBILEN MUSIKA EMANALDIA

Gandiaga oroitzeko ekitaldiekin jarraituz, azaroaren 8an Gontzal Mendibil musikagile eta abeslariaren emanaldia egongo da Arantzazuko Kriptan, goizeko 10:30etan (5€). Ainhoa Tabuyo abeslariaren ahots goxoa eta Jose Luis Canalen pianoa eta Angel Unzuren gitarra lagun dituela, Gandiagaren ibilbidea jorratuko dute, garaian garaiko bere poemen sustarretan sakonduz, eta Gandiagaren bizitzako pasadizo batzuk antzezpen eran aurkeztuz.

Gontzal Mendibilek Gandiagaren olerki asko musikatu zituen eta ondo ezagutzen zuen fraide mendatarra. "Eskultoreak harria zizelkatzen dauan modu beretsuan zaintzen ebazan hitzak eta honen esangura eta ondorena; ez eban hitz ponpoxorik bilatzen, neurriko eta eraberekoa baino ez, geroan irakurleari gorputza astinduko deutsan hitza, hitz neurtua eta gihartua", adierazi zuen musikari zeanuritarrak. Emanaldirako izen-ematea: ***adiskideak@arantzazu.org*** / **688 613 840**. Leku mugatua egongo da.

GONTZAL MENDIBIL
Euskal abeslaria

Gandiagaren ibilbidea jorratuko dugu, garaian garaiko bere poemen sustarretan sakonduz. Gainera, haren bizitzako pasadizoak aurkeztuko ditugu antzezpen gisan



2026an beteko dira 25 urte Bitoriano Gandiaga Artetxe (Mendata, 1928 - Arantzazu, 2001) fraide eta poeta hil zela (Arantzazuko artxiboa)

"Bihotz bihotzez maite dut lurra,
zuhaitz eta loreetan,
guztiena eta guztientzakoa lurra, baina
zergatik naiz hain kontentagaitz,
hain gehiago gurako, hain aseezin?
Antonio Machadok
zituen gaixoez gain,
badut nik besterik:
hark ez zuen hizkuntza
zurtz eta erasotu
maitearen nekerik"

Gandiaga eta Gontzal Mendibil 1985eko udaldian Arantzazuko seminarioan emandako euskarazko eskolen baitako saio batean

Erakusleiho birtuala

http://ezagutu.arantzazu.org

Arantzazu leku ezaguna da gehienontzat, baina 500 urtetik gorako historia izanik, badira oraindik herritar askorentzat ezezagunak diren hainbat jakingarri, eta horiek gizarteratzeko asmoz '**EZAGUTU ARANTZAZU**' ekimena jarri zuten abian Arantzazuko Adiskideen Elkarteak eta Arantzazuko Frantziskotarrek 2024an.

Orduz geroztik, Arantzazu ertz desberdinetatik (espiritualtasuna, historia, artea, literatura, hizkuntza...) ikertu eta landu duten adituak gonbidatu izan dituzte tarteka, ezagutza horretan sakontzeko aukera eskainiz nahi duen orori.

Bestalde, Frantziskotarrek eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzei esker, azken urte hauetan lan izugarria egin da Arantzazuko liburutegian eta artxibategian. Dokumentu berriak aurkitu dira, eta horiek ere ezagutza berriak dakartzate. Dokumentu guztiak katalogatu eta digitalizatzeko denbora beharko den arren, horiek gizarteratzeko ahaleginean lehen pausoak ematen hasi dira 'Ezagutu Arantzazu' ekimenaren baitan, eta horren adibide da Interneten (***http://ezagutu.arantzazu.org***) ireki berri duten webgunea.

Oraingoz, Bitoriano Gandiaga fraide eta poetari buruzko informazioa aurkituko dugu bertan, 2026an haren heriotzaren 25. urteurrena beteko dela aintzat hartuta. Sei ataletan banatuta, Gandiagaren bizitza, pentsakera eta sormen lanari buruzko hainbat dokumentu, idazki, ilustrazio eta argazki aurkituko ditugu bertan; hala nola, Pello Zabala zenak 2003an idatzitako 'Bitoriano Gandiaga Arantzazun frantziskotar' artikulu zoragarria, edota mendatarraren olerki liburu arrakastatsuenen –*Elorri* (1962), *Hiru gizon bakarka* (1974) eta *Uda batez Madrilen* (1977)- inguruko testigantzak, oharrak, zirriborroak, argitaratu gabeko olerkiak eta beste. Benetako harribitxiak.

Asmoa da, poliki poliki, Arantzazuko ikur izan diren beste hainbat fraide-sortzaileren lanak (Salbatore Mitxelena, Aita Lasa, Jose Adrian Lizarralde, Villasante, Iñaki Beristain...) gehitzen joatea webgunean.

2026ko EGUTEGIA Gandiagari eskainia

Arantzazuko Adiskideen Elkarteak atera duen 2026ko horma-egutegia Bitoriano Gandiaga zenari eskainia dago. Argazki ederrez gain, Mendatako poetaren olerki bana dakar hileroko orrian. Arantzazuko santutegian, oroigarri dendan edo *edicionesfranciscanasarantzazu.com* atarian eskura daiteke.

HARRIBITXIAK

Arantzazuko liburutegi eta artxiboko arduradunek prestatu duten erakusketa digitalean dokumentu, idazki eta argazki bereziak aurkituko ditugu. Hona hemen adibide batzuk:



▲ **Gutuna Oteizari**
Hil baino astebete lehenago Gandiagak Jorge Oteizari idatzitako agurreko gutuna

▲ **'Elorri' Ilustrazioak**
Elorri libururako marraztu, baina argitaratu gabe geratu ziren 19 ilustrazio

▲ **'Begion lore'**
1954an Arantzazuko literatur lehiaketan lehen saria lortu zuten Gandiagaren olerkiak

▲ **Gandiaga arkeologo**
Urbia inguruan Arkeolan-eko indusketa arkeologikoetan laguntzen ere jardun zuen

362. zkia
2025eko azaroa

%3,3 igoko dira udal tasa eta zergak 2026an

> Iazko irailetik aurtengora KPIak izandako igoera bera aplikatzea erabaki du gobernu taldeak, "kalitatezko zerbitzu publikoak mantendu eta behar handiena duten herritarrei eta herriko talde eragileei laguntzen jarraitzeko". **>** EAJk aurka bozkatu du

Udalbatzako kideak urriko osoko bilkuran

Iazko irailetik aurtengora KPIak Gipuzkoan izan duen %3,3ko igoera bera aplikatuko da 2026ko udal zerga eta tasetan. Halaxe erabaki zuen udalbatzak urriaren 30eko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz.

"KPIaren igoera aplikatzea beharrezkoa iruditzen zaigu", adierazi zuen Xabier Igartua (EH Bildu) Ogasun batzordeko buruak. "Kalitatezko zerbitzu publikoak ematen jarraitu ahal izateko, eta, orain arte bezala, egoera zaurgarrian dauden eta behar handiena duten herritarrei zein herriko hainbat elkarteri dirulaguntzak ematen jarraitzeko arduraz jokatu behar dugu, udalak ematen dituen zerbitzuen kostuek ere gora egingo dutela kontuan izanda".

Gainerakoan, udaleko batzorde ezberdinetatik iritsitako 15 proposamen ere onartu ziren aho batez, ordenantzetako zenbait puntu osatu, hobetu eta eguneratuz. Horien artean, adibidez, kanposantuko lurzatien kontzesioan aplikatuko diren tasak (hilobiaren zabaleraren arabera, urteko 84 eta 336 euro artean), eta tasa hori urtero kobratzea onartu zen.

LURPERATZE TASA BERRIA

Hilerriarekin jarraituz, gorpuak 14:00etatik aurrera hilobiratzeagatiko tasa berria (480€) onartu da. "Beste herri batzuetan egin den moduan, ilunkaran gorpuak lurperatzeko aukera ezabatu ordez, zerbitzua mantentzearen alde egin dugu, baina zerbitzu horrek duen gain-kostua tasetara eraman behar dela uste dugu", arrazoitu zuen udal gobernuak. "Orain arteko tasa bere horretan mantentzen da, brigadako langileen lan ordutegian lurperatzea eskatzen dutenentzat". EAJk tasa honen aurka bozkatu zuen, Oñatin ehorzketa gehienak iluntzean egiteko ohitura dagoela kontuan hartuta.

Bestalde, iroldegiari daogkionez, azpimarratzekoa da fitness lehorreko jardueretan %40ko deskontua aplikatuko zaiola hirugarren jardueran izena ematen duenari, eta laugarrena doan izango dela. Kiroldegiko ur-jardueretan, berriz, %12,8ko igoera aplikatuko da 2026an, udalak kontratatuko edo berrituko duen zerbitzuak %22,95eko igoera izatea aurreikusten baita.

EAJ AURKA

EAJk zerga eta tasei aplikatuko zaien %3,3ko igoera orokorraren aurka bozkatu zuen. Foru Funtsak 2026an %9ko igoera izango duela aurreikusita, asko jota %1,5eko igoera aplikatzea proposatu zuten jeltzaleek, zergak apalduz, herritarren mesedetan. Gobernuaren izenean Igartuak erantzun zuen, esanez, %9ko

EAJren proposamenak

EAJren udal taldeak 2026ko Zerga eta Tasen Ordenantzarako hainbat proposamen aurkeztu ditu, hiru helburu nagusirekin: etxebizitza eskuratzeko aukera areagotzea; trantsizio energetikoa babestea; eta herritarrentzako zerga politika bidezkoagoa eta eskuragarriagoa sustatzea. Hona hemen laburbilduta:

Etxebizitzen alokairua sustatzea

1. Etxebizitza hutsen OHZn (Ondasun Higiezinen Gaineko zerga) %100eko zigor-errekargua kentzea.

2. %50eko hobaria aplikatzea OHZn, merkatu librean alokatutako etxebizitzetarako, Bizigune programaren baldintzekin parekatuz. Eskaintzarik ez dagoenez, hutsik dauden etxebizitzak alokairura ateratzeko pizgarriak ezartzeko unea dela uste du EAJk

3. Alokairurako etxebizitzetako obren gaineko zergan hobariak aplikatzeko baldintzak malgutzea.

Eraginkortasun energetikoa

4. %50eko hobaria OHZn, homologatutako ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak dituzten aparkalekuetarako.

5. Gaur egun 30 urtetik gorako ibilgailuei aplikatzen zaien hobaria, 'historiko' gisa katalogatuetakoetara mugatzea.

Errealitate sozialera egokitzea

6. Kiroldegiko tasetan tarifa murriztuak aplikatzeko adin-muga 22urtetik 25era igotzea, gazteen errealitate sozial eta ekonomikora egokitzeko.

7. Ikastaroen eta matrikulen tarifa murriztuen adin muga 22 urtetik 25era igotzea.

8. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergari dagokionez , obra txikietarako atalasea (3.000€) kentzea, erreforma txikiak egitea errazteko.

EAJk proposatutako neurrietatik bakar bat (5. puntua) onartu du gobernu taldeak.

Bestalde, 8. proposamenari dagokionez, gobernu taldeak argitu zuen gaur egungo ordenantzek aukera ematen dutela 3.000 eurotik beherako aurrekontuaren arabera aplikatzeko obren gaineko zerga.

kalkulu hori oker eginda dagoela, zein urterekin alderatzen den baita kontua.

Baina EAJk aurkeztutako proposamenei dagokienez, etxebizitzaren ingurukoak eragin zuten eztabaida handiena. Gobernu taldearen izenean Igartuak esan zuen ulerkaitza dela nola proposatzen duten etxebizitza hutsei OHZ zergan aplikatzen zaien %100eko errekargua kentzea. "Gure ustez baliagarria da etxe horiek alokairu merkatura ateratzeko eta emantzipatu ezin duten gazteei edo bestelakoentzat laguntzak bideratzeko. Esango diguzue errekargua kentzeak zertan laguntzen duen etxebizitzaren arazoa konpontzeko".

EAJren izenean Xabi Mugarzak esan zuen Oñatin dugun arazo larrienetako bat dela alokairurako etxebizitza falta, eta pizgarri fiskalak aplikatzeko unea dela. "Guk OHZ zergan %50eko hobaria aplikatzea proposatzen dugu merkatu librean alokatutako etxebizitzetarako, Bizigune-Alokabidekoek duten baldintza fiskalekin berdinduz, eta hori onartuz gero, errekarguarena dagoenetan uztea onartuko genuke". Igartuak erantzun zion: "Bizigune/Alokabidera bideratutako etxeen hobarien arrazoia alokairu sozialera bideratzen direlako da, eta merkatu librean alokatutako etxebizitzek ez dute beraien helburu soziala betetzen".

Auto elektrikoak kargatzeko puntua duten eraikinei OHZn %50eko hobaria aplikatzea ere ez du ongi ikusten EH Bilduk, Ibilgailuan Zergan badagoelako, jada, %50eko hobaria auto elektrikoa dutenentzat.

Kiroldegiko tasetan hobariak aplikatzeko dagoen 22 urteko adin muga bere horretan ondo dagoela adierazi zuen udal gobernuak –EAJk 25era igotzea proposatzen du–. "Sarri esan dugun moduan, adina baino, diru sarrerak daude oinarrian. Horregatik, kiroldegiko tasa eta gainerako ikastaro eta matrikulen kasuan diru-sarrerak oinarrian dituen bidezko hobari sistema aplikatzen dugu", adierazi zuen Igartuak. ▪

Txiki Txokon aterpea eraiki du Udalak

Kanpo-espazio inklusiboa egokitzeko proiektuaren lehen faseko lanak burutu dira horrenbestez

Haurreskolak Partzuergoak haurreskola publikoen doakotasuna ezartzearekin batera (2023-24 ikasrtutetik aurrera) gora egin zuen nabarmen Txiki Txoko haurreskolako matrikulazioak, eta igoera horri erantzun ahal izateko bosgarren gela egokitzeko lanak egin zituen udalak, 42 haurri zerbitzua emateko aukera izatetik 55 haurri emateko aukera izatera pasatuz.

Ondoren, matrikulan izandako gorakadari erantzun eta kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, lan osagarriak egin beharra ikusi zen: batetik, haur-kotxeentzako aparkaleku estalia berritu eta handitzea; bestetik, haurren segurtasuna bermatzeko kanpoaldeko itxitura-hesian neurri zuzentzaileak gauzatzea; eta hirugarrenik, kanpo espazio inklusiboa egokitzea, haurreskolan erabiltzen diren kanpo espazioen erabilera optimizatzeko.

Aurreneko bi esku-hartzeak 2024an burutu ziren, eta kanpo espazioa egokitzeko, *Kimubat* enpresak 2021ean egindako proiektua berreskuratu zen, kontestu edo egoera berrira egokituta.

Kimubat-en proiektuak urte osoan erabili ahal izateko aterpea egokitzea jasotzen du, estalki argitsu batekin, bertan egun dauden natur baliabideak errespetatuz; eta, bestetik, kanpo espazioa barrukoaren hedapen moduan kudeatu ahal izateko azpiegitura izatea.

Halaber, kanpo espazioa hiru gune nagusitan antolatzea proposatzen du, adin-tarte eta haur talde ezberdinen beharrei erantzunez. Hori horrela izanik, aurrekontuaren dimentsioa –66.925€, BEZ barne- eta lanak gauzatzeko zegoen epea mugatua zela kontuan izanik –*Next Generation* funtseko laguntza jasotzeko 2025ean amaituta egon behar zuen–, proiektua faseka egitea erabaki da eta, hala, uztaila eta iraila artean, I. faseko lanak egin dira, Txiki Txokoko 'Sehaska Gunea'ri dagokiona, hain zuzen, 21.152€-ko (BEZ barne) aurrekontuarekin, eta Next funtseko laguntzarekin finantzatuta %100ean. Goiko argazkian ikusten den moduan, 40m²-ko estalpe egitura egokitu da, eta zoruan hiru azalera ezberdin bereizi dira: tarimazkoa, kortxozkoa eta belardia. ▪

NII moda
MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak
• Administrazioa • Haziendarekin
• Informazioa • Trafikorekin
• Salmenta • Herentziak, eta abar
Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

362. zkia
2025eko azaroa

Animalien garraiorako ibilgailuak desinfektatzeko zerbitzua jarri du martxan Zubillagako hiltegiak

Garbiketa gunea, horma gorrian

Desinfekzio gunea, horma urdinean

Animaliak errepidez garraiatzeko ibilgailuak garbitu eta desinfektatzeko betebeharra ezarri zuen 638/2019 Errege Dekretuak. Ondorioz, ehiztari, hipika zale, baserritar zein lehen sektoreko profesionalak behartuta daude edozein animalia, bizia edo hila, garraiatu ostean, ibilgailuak desinfektatzera, zoonosi oro saihesteko.

Hori dela eta, Zubillagako hiltegiaren helburuetako bat baserritarrei lana ahalik eta gehien erraztea dela kontuan izanda, animalien garraiorako erabiltzen diren ibilgailuak garbitu eta desinfektatzeko zerbitzua jarri du martxan. Zerbitzu hau hiltegiko bezero ez direnek ere erabili ahal izango dute.

» Ehiztari, hipika zale, baserritar zein lehen sektoreko profesionalak behartuta daude edozein animalia, bizia edo hila, garraiatu ostean ibilgailuak deseinfektatzera, zoonosi oro saihesteko

» Zubillagako hiltegiak ipini duen desinfekzio zerbitzua bertako bezero ez direnek ere erabili ahal izango dute

ORDUTEGIA ETA PREZIOAK

Ibilgailuaren garbiketa norberak egin behar duenez, garbitzeko zerbitzuaren ordutegia librea da, eta 2,5€-ko balioa duen fitxa sartuta egin daiteke. Aldiz, desinfekzioa Zubillagako langileen ardura da; horregatik, hiltegiko ordutegiaren barruan egin beharko da, astelehenetik ostiralera (7:00-13:30). Desinfekzioaren prezioa desberdina da ibilgailu motaren arabera: karroak 5€, kamioiak 10€, eta abereak hiltegira eramaten ez dituzten ibilgailuak (ehiza, hipika...) 15€.

PROZEDURA

Ibilgailuen garbiketa edo desinfekzio prozesuan oinarrizko pausu batzuk jarraitu beharko dira: **1.** Ibilgailuak zamalanetarako kaian aparkatu eta ganadua deskargatu; **2.** Hondakin solidoak edukiontzira bota –bulegoan eskura daitezke tresnak, hala nola, pala eta eskuilak–; **3.** Ondoren eraman ibilgailua garbiketa gunera (horma gorria), gezien norabide berean; **4.** Garbiketa fitxa sartu eta presiora irteten den urarekin garbitu ibilgailuaren kanpoaldea eta barrualdea; **5.** Zubillagako langileak garbiketa zuzena dela egiaztatu ostean, ibilgailua desinfekzio arkutik igaro abiadura motelean; **6.** Aparkatu ibilgailua desinfekzio gunean (horma urdina). Hiltegiko langilea arduratuko da desinfekzioa egiteaz; **7.** Zubillagako langileak azienda sartzeko ateak zigilatuko ditu; **8.** Garbiketa tresnak bulegoan utzi eta desinfekzio ziurtagiria jaso.

Bake epailea eta ordezkoa hautatzeko prozesua abian da

Oñatiko bake epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko prozesua abian jarri du udalak. Oñatin bizi den 18 urtetik gorako edonor izan daiteke bake epaile. Euskaraz eta gazteleraz, ahoz zein idatziz lan egiteko gai dela egiaztatu behar dute hautagaiek. Euskarari dagokionean C1 edo EGA maila edukitzea eskatuko da, agiria aurkeztuz edo froga gaindituz.

Zuzenbideari buruzko ezagutza izatea baloratuko da, baina ez da derrigorrezkoa. Arlo honetan lan egiten duten abokatu eta prokuradoreek ezin dute bake epaile izan, ezta aholkularitza juridiko lanetan dihardutenek, ezta kargu politiko edo sindikala dutenek, edota funtzionario direnek ere. Hautaketarako irizpide nagusia elkarrizketa pertsonala izango da. Izendapenak lau urterako dira. Eskaerak udal bulegoan aurkeztu behar dira azaroaren 10a bitartean.

Olapoton izandako lur-jausia egonkortu du udalak

Olapototik Aldakiño-San Martin alderako baso-bidean eskailera mailak egokitu zituen udalak orain dela urtebete pasa, baina neguko euriteen ondorioz lur-jausia gertatu zen eremu horretan, eta goiko argazkian ikusten den moduan, lurra eta eskailerak egonkortzeko lanak egin behar izan dira bertan, hormigoia eta perfil metalikoak erabiliz. Lanak Excavaciones Arrasate enpresak egin ditu, 10.490 eurotan.

EKIN DEBAGOIENEAN

Ekintzaileentzako prestakuntza tailerrak antolatu ditu Mankomunitateak

Debagoienean jarduera ekonomiko bat abian jartzeko asmoa duten pertsonentzako prestakuntza tailerrak antolatu ditu Mankomunitateak. Ekitean sortzen diren ohiko galderei erantzutea da helburua. Hauek dira azarorako antolatu diren lau tailerrak:

AZAROAK 20, OSTEGUNA

• 09:30-11:30 'HASI BIANO LEHEN...'
Nire ideia negozio-aukera bat da? Zer da bideragarritasun plana? Zertarako balio du? Ekiteko laguntzak daude?

• 12:00-14:30 'ZENBAKI BATZUK...'
Zelan kalkulatu nire produktu/zerbitzuaren prezioa? Zein da nire marjina? Zelan kontrolatuko dut nire negozioa ondo doan?

AZAROAK 27, OSTEGUNA

• 09:30-11:30 'ABIAN JARTZEA...'
Zer izapide egin behar ditut lokal bat zabaltzeko? Eta mailegua eskatu behar badut? Ze era juridiko daude negozio bat montatzeko?

• 12:00-14:30 'IZAPIDEAK...'
Gizarte Segurantza: zelan funtzionatzen du Autonomoen Erregimenak? Eta kontratatu nahi badut? Ogasuna: ze tramite egin behar ditut jarduera hasteko? Eta jarduera hasi eta gero? Zer da TicketBai?

Lau tailer independente dira, eta guztietan edo batzuetan eman dezakezu izena. Tailerrak doakoak dira, aurrez-aurrekoak, eta beharrezkoa da izena ematea

'Bertakoak' txartela berritu edo ezeztatzeko epea ireki da

Bertakoak guneetan aparkatu ahal izateko txartelen alta eta baja eskaerak tramitatzeko epea zabalik dago azaroaren 19ra arte. HAZ bulegoan edo online, udalaren erregistro elektronikoaren bidez egin daitezke eskaerak. Txartel berria eskuratu nahi dutenek autoaren zirkulazio-baimenaren kopia eta kontu korronte zenbakia aurkeztu behar dute. Era berean, azken urtean autoa aldatu dutenek ere udal bulegoetan jakinarazi behar dute. Baja emateko, berriz, eskaera orria betetzea nahikoa da. Kontrakorik jakinarazten ez dutenei automatikoki berrituko zaie txartela.

Egun, 161 dira ***Bertakoak*** txartela duten herritarrak. Gehienak (103) Bidebarrieta kale inguruko 6. gunean, eta gainontzeko 58k Aita Mortara eta Aita Madina kaleko 5. gunean.

Gazteen sormen lanetarako dirulaguntza deialdia

Herriko gazte talde edo norbanakoen sormen lanak sustatzeko urteko bigarren dirulaguntza deialdia egin du udaleko Haur eta Gazteria sailak. Laguntzak jaso ahal izateko baldintzak hauek dira: eskatzailea –taldea edo norbanakoa– oñatiarra izatea, eta eskatzaileen kideen erdia, gutxienez, 12 eta 30 urte artekoa izatea. Eskaerak HAZ bulegoan, aurrez aurre, edo udaletxeko erregistro elektronikoan aurkeztu behar dira, azaroaren 14a baino lehen. Informazio gehiago, Gaztelekuan. Denera, 15.000 euroko diru poltsa dago banatzeko.

Arantzazuko autobus zerbitzuan neguko ordutegia indarrean

Azaroarekin batera neguko ordutegia sartu da indarrean Oñati eta Arantzazu arteko Herribus zerbitzuan. Horrek esan nahi du, goizeko 7,30etan hasita ordubetero abiatuko dela autobusa Oñatitik, azkena 17:30etan (10:30etako zerbitzua Arrikrutzera ere joaten da). Arantzazutik behera berriz, goizeko 8etan abiatzen da lehenengo autobusa eta 18:00etan azkena.

Cartonajes Arregui, S.A.
• Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
• Enbase eta enbalajeen fabrikazioa
Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANE MERTZERIA
• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

'Zuk erosi, guk saritu!' kanpaina jarri du abian TXANDAk

500€-ko sari bat eta **200€**-ko hamar sari zozkatuko dituzte azaroaren 20an

Urriaren 20tik azaroaren 19ra bitartean erosketak Oñatin egiten dituzten bezero guztien artean 500€-ko sari bat eta 200€-ko 10 sari zozketatuko ditu TXANDA elkarteak.
Sariak erosketa-bonotan emango dira eta, gutxienez, 4 establezimendu desberdinetan trukatu edo gastatu beharko dira, azaroaren 22tik 29ra bitartean (Txanda Astea).
Gabonak aurreko hilabeteetan tokiko erosketak sustatzea da helburua.

PARTE HARTZEKO
Zozketan parte hartzeko, bezeroek erosketa tiketa komertzio bakoitzean egongo den kutxan sartu beharko du, bere izen-abizenak eta telefono zenbakia jarrita. Zozketan parte hartzeko azken eguna azaroaren 19a izango da. Zozketa azaroaren 20an egingo da eta dendarien elkarteak dei egindo die sarituak izan diren pertsonei. Sari banaketa azaroaren 22an egingo da, 9:30etan, Foruen plazan.

Musikara TXANDAren eskutik

'**Herrixan erosi, zuk irabazi**' lelopean, kanpaina berria jarri du abian TXANDAk. Hala, datozen hilabeteetan Gaztelekuan eta Santa Ana antzokian egongo diren kontzertuetarako **10na sarrera** (binakako 5) zozkatuko dituzte TXANDAko dendetan erosketak egiten dituzten guztien artean. Hauek dira kontzertuak:

- Azaroak 7: ***Sukena*** + ***Indabe***
- Azaroak 14: ***Brigade Loco***+***Cold Revenge*** +***Laino beltzak***
- Abenduak 13: ***Malko***
- Abenduak 20: ***Goazen*** (17:00etako saioa)
- Abenduak 27: ***Janus Lester***

Azaroaren 7an ***Sukena*** Oñatiarrak eta ***Indabe*** hirukote donostiarrak ariko dira Gaztelekuan, 22:00etan. (Aurrez, 12€ / takillan 15€)

Kale garbitzeileek bertan behera utzi dute greba

Udal gobernu taldearekin adostutako aurre-akordioa nahikotzat eman ostean, 34 egunez lutzatu den greba bertan behera uztea erabaki zuten udaleko kale garbitzaileek urriaren 31n. LAB sindikatuak prentsara igorritako oharrean dioenez, lan baldintzetan hobekuntza nabarmenak lortu dituzte, eta eratu den mahai teknikoan hobekuntza gehiago lortuko direla aurreikusten du. Udal gobernuak ere jakinarazi du ordezkari politikoz, teknikariz, langile ordezkariz eta kale garbiketako langileez osatutako mahai tekniko bat eratu dela, bi aldeek egoki ikusten duten egutegia zehazten joateko. Udalak dio hasieratik izan duela negoziatzeko prestutasuna, eta greba bertan behera geratu bada ere, akordioa lantzen jarraitzeko konpromisoa berretsi du.

ELA sindikatuak, bestalde, ez du akordioa sinatu, ez-nahikoa eta segurtasun juririkorik gabekoa dela iritzita. ELAren ustez benetako hobekuntza batek, zerbitzuan kalterik izan gabe, langile gehiagoren beharra eskatzen du.

BI KALE-GARBITZAILE KONTRATATZEKO DEIALDIA
Lanbide-ren bitartez, kale garbiketa zerbitzurako bi peoi kontratatzeko deialdia egin du udalak. Kontratua 4 hilabetekoa izango da, lanjardun osokoa. Izena emateko azken eguna azaroaren 7a da, Lanbide-ren web orrian bertan (erabiltzaile izena eta pasahitza erabiliz, edo identifikazio elektroniko bidez), edo, telefonoz: 945 160 600. Lan eskaintzaren kodea: 1620250126 11.

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

ETXiAN
Inmobiliaria
Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net

Tokiko merkataritzaren aldeko hainbat proposamen helarazi dizkio EAJk udal gobernuari

EAJren udal taldeak tokiko merkataritza indartzeko eta biziberritzeko plan bat egiteko eskatu dio EH Bilduren udal gobernuari, eta hainbat proposamen jarri ditu mahai gainean, herriko merkatarien eskaera nagusiak jaso ondoren. Neurrien artean, honako hauek nabarmendu dituzte jeltzaleek:

- Tokiko merkataritzaren diagnostikoa egueratzea (azkena 2020an egin zen) eta ekintza plan bat diseinatzea, neurri argiekin eta partida propio batekin udal aurrekontuetan.
- Sentsibilizazio- eta sustapen-kanpainak etengabe bultzatzea urtean zehar.
- Ikastetxeekin lankidetzan aritzea, gazteen artean herrian erostearen balioa sustatzeko, eta, ildo berean, tokiko merkataritza aldarrikatzeko egun bat ezartzea.
- Bezeroen segurtasuna bermatzea merkataritza-kaleetan bizikleten abiadura erregulatuz.
- Dinamizazio-proposamen berriei erantzutea:
  - Merkatarientzat egokitutako TAO formulak ezartzea.
  - Gabonetako argiztapena eta giroa indartzea, plazan pinua berreskuratuz eta argiak hobetuz
  - Pantaila digitalak ipintzea puntu estrategikoetan (Arrikrutz, BUS geltokia, autokarabana gunea...) tokiko merkataritzari buruzko informazioa zabaltzeko.
  - Kontsumo bonuak ematea sari gisa udal lehiaketa eta jardueretan (margo lehiaketa, baratxuri zopa, jai-egitarauaren azala...).

EAJrentzat "gai estrategikoa da udalerriaren erdigunea bizirik mantentzeko, enplegua sortzeko eta Oñatik kalitatezko jarduera eta zerbitzuak dituen herria izaten jarraituko duela bermatzeko", adierazi du Amaia Erostarbe bozeramaleak. "Merkataritza erortzen uzten badugu, bizi-kalitatea, segurtasuna eta gizarte-kohesioa galduko ditugu". EAJk eskua luzatu dio udal gobernuari elkarrekin lan egiteko, baina hitzetatik ekintzetara pasatzea exijitu du.

Amaia Erostarbe, EAJren udal taldearen bozeramalea

EAJrentzat gai estrategikoa da udalerriaren erdigunea bizirik mantentzeko, enplegua sortzeko eta Oñatik kalitatezko jarduera eta zerbitzuak dituen herria izaten jarraituko duela bermatzeko

Merkataritza erortzen uzten badugu, bizi-kalitatea, segurtasuna eta gizarte-kohesioa galduko ditugu

Kale Barria 2 zenbakiko lokala erosi du udalak 500.000 eurotan

Kale Barriko 2 zenbakian dagoen Elorriaga Etxea izeneko eraikineko behe solairuko lokala (Kale Barria aldera dagoena) erostea erabaki du Udalak 500.000 eurotan. Oñatiko hirigune historikoak Kultura Ondasun izendapena du eta, ondorioz, aipatutako etxeak ere babes berezia du eta, horregatik, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen menpe dago etxe horren eskualdatzea.

Hori horrela izanik, Oñatiko udalak Jaurlaritzako kultura sailari jakinarazi zion bazuela Kale Barria 2 zenbakiko lokala erosteko interesa, eta, hala, udaleko zerbitzu teknikoek lokala ikuskatu, baloratu eta erosketaren egokitasunari buruzko aldeko txostena egin ostean, aipatutako lokala 500 mila eurotan erostea erabaki zuen udalak, aho batez, iraileko osoko bilkuran.

Lokalak 169,35m^2 erabilgarri ditu, bulego erabilerarako egokituta dago, eta udaletxetik hurrean egonik, udalak etorkizunean izan ditzakeen premia berriei erantzuteko egokia izan daitekeela uste dute udal arduradunek.

ALOKAIRU KONTRATUA KUTXAREKIN

Erosketa gauzatu ostean, egun lokala erabiltzen duen Kutxabank S.A.-rekin errentamendu kontratu berria sinatzea onartu zuen udalbatzak aho batez, urriko osoko bilkuran. Sinatutako kontratu berria urtero berrituko da eta, gehienez, bost urterako izango da, finantza erakundeak lokal berria aurkitu eta egokitzapen lanak egin arte. Hileroko 3.837ko euroko errenta adostu dute, urteko KPIaren arabera berrituko dena.

'**Bestaldetik etorriak**' liburua plazaratu du Joxefe Diaz de Tuestak

> Hilzorian egon diren 19 herritarren testigantzak eta argazkiak bildu ditu

"San Peddrori bizarrak ikusi, hil hurren egon, eta berriz ere bueltan etorri diren oñatiarren testigantza eta argazkiz osatutako lana da". Halaxe laburbiltzen du Joxefe Diaz de Tuestak *Bestaldetik etorriak* lana, lagunarteko hizkeran.Gaixotasun larriren bat edo istripuren bat izan ostean, bizirik atera diren hemeretzi herritarren bizipenak eta kontakizunak jaso ditu, "hitzez hitz, haiek kontatutako moduan, lehen pertsonan, eta bakoitzaren erregistroa mantenduz".

Argazkiek ere toki nabarmena dute liburuan –argazkilaria da Diaz de Tuesta– eta horien bidez islatu nahi izan du protagonistengan ikusitakoa. "Oro har, bizitzeko gogoa transmititu didate guztiek", nabarmendu du egileak.



Liburuko atal bakoitzaren hasieran, heriotza eta bizitzari buruzko hainbat idazleren aipuak ere aurkituko ditugu. Liburua plazaratzeko udalak eta Ulmak emandako laguntza eta Artixa elkartearen babesa eskertu ditu egileak. Liburu berezi eta eder hau Altuna estankoan, Haritza liburu-dendan eta Txokolateixan eskura daiteke (35€). Bestela, *https://anediaz.github.io/atauri* webgunean ere irakur daitezke liburuko protagonisten testigantzak.

'**Zubixa**', Oñatiri buruzko aldizkari digital berria

> Bi hilean behingo maiztasuna izango du, ***zubixa.eus*** atarian

Azken udal hauteskundeetan Alderdi Popularraren hautagaia izan zen Ricardo Guisado-Balanzategik '**Zubixa**' proiektua jarri du martxan. "Kultur proiektu bat da, batez ere Oñatiko gaietan zentratua, eta baita Euskadikoetan ere", azaldu digu sustatzaileak. "Oñatiko historia, kultura, lehen sektorea, hezkuntza, ehiza, kirola... Herritarrak kezkatzen dituzten gaiak jorratuko ditugu, eta gehienbat euskaraz izatea nahi dugu. Ahalegin berezia egin nahi dut zentzu horretan".

Gure iraganaren eta etorkizunaren arteko zubi lana egiteko asmoz jaio da ***Zubixa***, norberaren ideologiak alde batera utzita, gure gazte eta adinekoen arteko zubi-lana egiteko, tradizioa, oraina eta etorkizuna uztartuz.

Aldizkaria bi hilean behin aterako da

eta ***zubixa.eus*** webgunean irakurri edo deskargatu ahal izango da dohainik. Urriko 0 zenbakia eskura dago jada.

HITZALDIAK

Aldizkariaz gain, tarteka hitzaldiak antolatzeko asmoa du 'Zubixa'-k. Urriaren 21ean Adimen Artifizialari buruzko solasaldi interesgarria egon zen kultur etxean. Aurretik, Palestina-Israel gatazka eta landa-eremuaren utzikeria jorratu zituzten, goi mailako hizlariekin beti ere.

Arantzazuko XII. 'Mikopoteo' jardunaldia azaroaren 15ean

Urtetik urtera gero eta herritar gehiago erakartzen dituen Mikopoteo Jardunaldiaren XII. edizioa azaroaren 15ean ospatuko da Arantzazun. Hasteko, hitzaldia emango du Esti Sarrionandiak, EHUko mikologo adituak: '***Mikologiaren sustraietara: Mikopoteoa argitzen Mikorrizen itzaletik***'. Onttoek (miko-) sustrairik ez duten arren, landare sustraiekin (-riza) duten lotura estu eta liluragarriaz hitz egingo du, euren artean eratzen diren sare konplexuen mundu ikusezinaz. Gandiaga Topagunean izango da hitzaldia, 17:30etan.

Ondoren, 19:00etan, Mikopoteoa hasiko da Arantzazuko gastronomia-zirkuitoan barrena: Zelai-Zabal, Arantzazuko Santutegia Hotela, Goiko Benta eta Sindika. Mikopintxo bakoitzak 1,5 euro balioko du, eta edaria ostatu bakoitzaren prezioaren araberakoa izango da.

Errigorako saskiak

Nafarroako euskalgintzari laguntzeko

Abian da *Errigora* kanpaina, Nafarroa erdi eta helgoaldeko euskalgintzari (AEK, Sortzen, Ikastolak eta Agerraldia) laguntzeko eta euskarak arnasa har dezan ofizialtasunik ez duen zonaldean.

Horretarako, Nafarroa hegoaldeko produktuz osatutako saskiak eskatzeko aukera dugu, ekarpen ekonomiko garrantzitsua eginez euskalgintzari (saski bakoitzaren balioaren %25). Eskaerak egiteko azken eguna, azaroaren 9a. Informazio gehiago: ***www.errigora.eus***

“ZEREN ZAIN ZAUDE AURREZTEN HASTEKO?”

ZUNTZA 500Mb
+ 2 MUGIKOR-LINEA
+ 50 GB PARTEKATZEKO

34,90 €/HILEAN
BEZA barne

Zatoz LIZKER INFORMATIKA dendara, kontrata ezazu zuntza + mugikor linea bat eta aukeratu zuretzat opari hau

LIZKER INFORMATIKA
ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600

(BEZa barne). Eta aukeratu bi opari hauen artean: aire bidezko frijigailua edo DGTk homologatutako baliza (2026ko urtarriletik aurrera derrigorrezkoa izango da). Azaroaren 30era arte, eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatzeko 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existentziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL
AURREZTU, ETA KITO

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus

Oñatiko Udala

Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:
Oñatiko Udala
Zuzendaria:
Iñigo Arregi
Publizitatea:
Iñigo Arregi
Diseinua eta Maketazioa:
Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)
Kolaboratzaileak:
Roberto Altuna, Gaztelekua Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila
Inprimategia: Gertu
Tirada:
5.500 ale
Lege gordailua:
SS-357/91
Posta-e:
kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Mendebaldearen erantzukizuna immigrazioaren aurrean

Jon Tomé Korkostegi

Globalizatutako mundu batean, non mugak zurrunak diren baina kapitala, informazioa eta salgaiak libreki mugitzen diren, immigrazioa anomalia gisa tratatzen da. Krisi edo arazo gisa ikusten da, eta gutxitan ulertzen da bere benetako testuinguruan: Mendebaldea mendeetan zehar onuradun izan den sistema ekonomiko eta geopolitiko sakonki desorekatu baten ondorio zuzen gisa. Gutxitan jorratzen da Mendebaldeak duen erantzukizuna milioika pertsona euren herrialdeak uztera behartzen dituzten egoerak sortzean.

Mendebaldea immigrazioaren aurrean ez da ikusle pasibo bat; protagonista nagusia da. Kolonialismotik hasi eta Afrikan, Ekialde Hurbilean edo Hego Amerikan izandako eskuhartze militar eta ekonomiko modernoetara arte, Mendebaldeko potentzia handiek egungo gatazkan, pobrezian eta miserian nabarmen eragin dute. Ezin da immigrazioaz hitz egin petrolioaren gerrez, merkataritza-hitzarmen desorekatuez, interes atzerritarrek sostengatutako erregimen ustelez edo ekosistemak ustiatu eta tokiko ekonomiak suntsitzen dituzten multinazionalez hitz egin gabe.

Egunero aberasten gara baliabideak gutxi batzuen eskuetan pilatzen dituen sistema global honen bitartez, beste askoren pobretzearen kontura —Mendebaldea baliabideen, lan-esku merkearen eta ekoizpen kutsatzailearen munduko kontsumitzaile nagusia den heinean—. Eta jardun honen ondorioak gure ateetara iristen direnean —pobrezia, diktadura, krisi klimatiko, biolentzia edo aukera ezaren ondorioz ihes egiten duten pertsonak—, diskurtso nagusia defentsibo bihurtzen da, eta batzuetan oldarkor ere bai. Narratiba bat eraikitzen da, non immigranteak duintasuna eta behar legitimoak dituen pertsona izateari uzten dion, eta mehatxu bihurtzen den: enpleguarentzat, segurtasunarentzat edo kulturarentzat (nahiz eta datuek mehatxu hauek desmuntatu).

Ukazio kolektiboaren forma bat da, mundu global baten abantailak nahi izatea, baina haren betebehar etikoak ez onartzea. Hau ez da soilik bidegabea, hipokrita eta krudela ere bada. Hainbeste urtez ukatu zaien ongizatearen zati txiki bat bilatzen duten pertsonak onartzea ez litzateke eskuzabaltasun keinutzat hartu behar, koherentzia eta gutxieneko erantzukizun keinutzat baizik.

Gizarte bat bere kide zaurgarrienekin duen jokabidearen arabera definitzen dela esaten da, eta immigranteekin duen tratua bere ispilu zintzoenetakoa da. Nola integra daiteke lehen egunetik baztertua den norbait? Nola integra daiteke etxebizitza, hezkuntza edo lan duin bat ukatzen bazaio? Integrazioa ezin da alde bakarreko eskakizuna izan, baizik eta prozesu partekatua, borondate politikoa, gizarte-inbertsioa eta, batez ere, enpatia eskatzen dituena.

Irailaren 18an herrikide eta lagun on batek utzi gintuen. Zorte on ibilbide berrian!

» OHAR ETA DEIALDIAK «

Irisgarritasun arazoa

Azkenaldian gurpil-aulkian ibili beharra egokitu zaion herritar batek azaldu digunez, Olaiturritik Lizaur kalerako irteeran, eskumara joz gero, kalea gurutzatu eta ezin izaten du argazkiko aterpera igo, espaloia eta beste maila bat daudelako. Ondorioz, errepidera atera behar izaten dute.

Mekalki S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak
Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

>> GAZTELEKUKO (VERDURY HALL) UDAZKEN-NEGUKO DENBORALDI BERRIA <<

Gaztelekuko Verduri Hall aretoak ateak zabaldu ditu berriro udazken-neguko kontzertu denboraldiari hasiera emateko. Aurten ere, eskaintza zaindu eta anitza izango dugu urtarrilera bitartean eta 2026an, urtarriletik apirilera ere, urtero bezala, aurrerago iragarriko den udaberriko eskaintza ere izango dugu. Sarrerak, ohiko moduan Txokolateixan eta onati.eus webgunean daude salgai.

Irekiera urriaren 19an izan zen, **Olaia Inziarte** baztandarraren kontzertu bereziarekin. Bere azken laneko ñabardura elektroniko eta folk ukituen artean, intimitatez beteriko kontzertua eskaini zuen; bertaratutakoek artistaren abestien edertasun eta ahotsaren gardentasuna gertutik bizitzeko aukera izan zuten. Hasiera borobila, zalantzarik gabe.

Olaia Inziarteren kontzertuko une bat (Arg.: Gaztelekua)

Azaroaren 7an, **Sukena** Oñatiarrak eta Antiguoko **Indabe** taldeak izango dira protagonista. Sukena-k bere '*Berriz ere*' birari amaiera emango dio Oñatin bertan, melodia itsaskorrak eta erritmo biziak eskainiko dizkigute etxeko publikoaren berotasunez inguraturik. Indabe taldeak berriz ikuspegi bereziak osatuko duen gau batean.

Astebete geroago, azaroaren 14an, aldaketa nabarmena izango da gurean: punk-oi giroa nagusituko baita Bergara aldetik etorritako hiru talderekin —**Laino Beltzak**, **Cold Revenge** eta **Brigade Loco**—. Brigade Loco-k bere azken lana, '*Bide baten esanahia*', aurkeztuko digute, borroka eta identitate kolektiboaren ispilu diren kantuetan sakonduz. Eurekin batera Laino Beltzak-en energia freskoa eta Cold Revenge-ren esperientzia bateratuta izango dira, euskal punkaren eszena bizirik dirauen erakusle.

Abenduaren 13an, berriz, soinua gogortu eta intentsitate emozionala areagotuko da **Malko** taldearen eskutik. Oñatiarren bira berriaren lehen kontzertua izango da, eta taldeak badaki indarra eta sentsibilitatea nola uztartu. Hauek ere etxean jokatzen dutela jakinda Verduri Hallen taldearen jarraitzaile mordoxka espero ditugu.

Udazken-negu denboraldiko prgramazioan etxeko txikiei ere lekua egingo zaie: abenduaren 20an, **Go!azen 12.0**-ko protagonistak izango baitira Santa Ana aretoan. Telebistako telesail arrakastatsuak duen ohiartzunak, ikusmin handia sortu izan du gure herriko gaztetxoengan, urteroko bihurtzen ari den zita honetan. Gaztelekuko egitaraua publiko guztiei zabaltzeko ahaleginaren erakusgarri da hitzordu hau, kultur transmisioaren zubi.

Eta, azkenik, urtea bukatzeko (ez hala denboraldia), **Janus Lester**-en kontzertua iritsiko da. Jokin Pinatxo Beratarra dugu proiektu honen atzean eta bere bigarren estudioko lana, '*Lore*', aurkeztuko digu abenduaren 27an. Diskoak sakontasuna eta heldutasuna uztartzen ditu, moldaketa zainduez eta eragin anglosaxoien dotoreziaz hornitua. Zuzenekoetan berriz, estilo propio baten baieztapena, eta Euskal Herriko indie eszenaren etorkizuneko erreferenteetako baten aurrean gaudela erakutsiko digu.

Laburbilduz, **Gaztelekuko denboraldi berria** ez da soilik kontzertu sorta bat: belaunaldi eta estilo desberdinen arteko elkarrizketa bizia da, Oñatiko eta inguruko ukituen artean dantzan dabilena. Verduri Hallen soinuak, berriro, Oñatiren bihotz erritmoa izango dira.

Haur eta Gazteria Teknikaria

Gaztelekuko 31. Xake Txapelketa

Abenduaren 7an jokatuko da Gaztelekuan (9:00) suitzar erara (13 minutu + 2 seg. jokaldi bakoitzean). Izen-ematea, abenduaren 3a baino lehen: Gaztelekuko bulegoan / 658 725 697 edo 943 71 82 57 / gazteinformazioa@onati.eus.

Emakumion Etxia

Emakumion Etxia eraikitzen / Parte-hartze prozesua

-TOPAGUNEA-

Sormen tailerra

AZAROAK 25

Emakumion Etxiaren atarian

17:00-18:30

Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko egunean gonbidapena egiten diegu herriko emakume guztiei elkartu gaitezen.

Zertarako?

ETXIA EZAGUTZEKO

ELKAR EZAGUTZEKO

ELKAR ZAINTZEKO

ELKARREKIN SORTZEKO

ELKARREKIN ALDARRIKATZEKO

INDARKERIARI AURRE EGITEKO

INFORMATUTA EGOTEKO HARPIDETU ZAITEZ

Watsappez 688 78 52 47

Emailez berdintasuna@onati.eus

Instagram ***@emakumionetxia***

INFORMAZIO GUZTIA: www.oñati.eus/eu/emakumion-etxia

Izan parte!

AZAROAK 25

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna

▸ **AZAROAK 21**
Zine aretoa, 18:00
Hitzaldia: 'Euskal gatazka ikuspegi feministatik'. Hizlaria: Olatz Dañobeitia

▸ **AZAROAK 24**
San Juan kaleko lokala, 17:00
Ikastaroa: 'Kakorratz ikastaroa gure korapiloak askatzeko'. (*) Izena eman behar da

▸ **AZAROAK 25**
Plazan **Topagunea**, 17:00
Adi mobilizazioei!

▸ **AZAROAK 28**
Santa Ana antzokia, 19:30
Antzerki-kabareta: 'Casarse por papeles es... verdadero amor!'.

▸ **AZAROAK 29**
Eltziako 3. saolairuan, 17:00
Ikastaroa: 'Batxata Salsa Kuir'.

▸ **ABENDUAK 2**
San Juan kaleko lokala, 17:00
Hitzaldia: 'Amatasunak zeharakatzen dituzten indarkeriak'. Hizlaria: Nahia Alkorta

▸ **ABENDUAK 11**
Eltziako 3. solairuan
Hitzaldi-solasaldia: 'Gabriela Wiener-ekin solasean'. Hegoamerikako kronista berrien taldeko idazle eta kazetari perutarra da Wiener.

HONDAKINEN INGURUKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

Arazo izugarri bilakatu dira hondakinak azken hamarkadetan, munduko pertsona eta herrialde guztiei erasaten dien arazo latza, baita beste bizidunei, ingurune eta paisaiei eta klimari ere. Finean, planeta osoari eragiten die.

'Hondakinen Prebentziorako Europako Astea' ekimenarekin bat eginez, Oñatin ere arazoa erdigunean jarri eta hausnartzeko hainbat aukera izango dira azaroaren 17tik 22ra.

EGITARAUA

- **Azaroak 17 (astelehena)**. **Esperientzia partekatuak: erabilitako etxeko olioarekin xaboia egiteko tailerra**. 17:00etan Natur Eskolan.
  Izena ematea beharrezkoa da azaroaren 14a baino lehen: *natureskola@yahoo.es* edo 943716404 telefonoan.
  Ekarri etxean duzuen olio erabilia!

- **Azaroak 18 (asteartea)**. **Dokumentala: 'Un océano de plástico'**. Zuzendaria Craig Leeson. 19:00etan Kultur Etxean

- **Azaroak 19 (asteazkena)**. **Hitzaldia**: **'Plastikoa; Eguneroko erosotasunaren atzean ezkutatzen den krisia'**. Izaskun Zorita Agirre, AZTIko ikerlaria eta EHUko irakaslea. 19:00etan Kultur Etxean

- **Azaroak 22 (larunbata)**. **Auzolana: Leuzarrako hondakinen garbiketa**. 9:00etan plazan

ESPERIENTZIA PARTEKATUAK

Naturaren, kultur eta etnografia ondarearen eta ingurumenaren ezagutza eta kontserbazioan esperientzia eta jakituria duten herritarrek beraien ezagutzak beste herritar batzuekin partekatzeko aukera emango duen espazioa izango da. Formatu anitza izan dezake: hizketaldi, ibilbide edota tailerra, esaterako. Herritarren jakituriari lekua eta plaza emateko espazioa izango da.

Esperientzia partekatuetan bere jakituria-esperientziak partekatu nahi duen oro gonbidatzen dugu Natur eskolako lantaldearekin harremanetan jartzera!

ERREKA GARBIKETA

'IBAILAGUN-2025' jardunaldien baitan errekak garbiketako saioa egin zen urriaren 18an. Guztira hogei bat pertsona batu ziren, eta bi taldetan banatu. Batzuk Olaran errekan, bestiok Parrokixa-unibertsitatea-Olaitturri ingurua garbittu zuten, baita plazako frontoi atzealdea ere. Plastiko asko, baitta traste haundiago batzuk ere: supermerkatuko karroa, kaleko trafikoa mugaketako piboea, konoak, hesiak, etab.

MENDI ASTEA 2025

AZAROAK 3-23 / KULTUR ETXEAN

Mendi-parapentea, eskalada saioak **Aconcaguan** eta **Broad Peak**-en, **mendi-eskaladako lesioei** buruzko hitzaldia, **Mendi Film Festival**-eko pelikulak, eta Aritz Gordoren **argazki erakusketa** ikusgai Aloña Mendiko Mendi sailaren eskutik

Aritz Gordoren argazki ederrak ikusgai daude kultur etxekoan azaroaren 23ra arte

Hasita dago, jada, Aloña Mendiko Mendi sailak, Oñatiko udalaren eta Euskal Mendi Federazioaren laguntzarekin prestatu duen Mendi Astea. Hala, azaroaren 3az geroztik ikusgai daude kultur etxeko erakusketa aretoan argazkilaritza naturalean eta aktiboan aditua den Aritz Gordo arrasatearraren argazki ederrak.



Bestalde, asteazkenean izan genuan aurreneko emanaldia, Alpeak aldenik alde hegan eta oinez zeharkatzean datzan Red Bull X-Alps probari buruzkoa.

Baina oraindik ere bada zer ikusia Mendi Astearen baitan. Hala, azaroaren 7an, Josu Bereziartua alpinista azpeitiarraren bi bideo emanaldiz gozatzeko aukera izango dugu, munduko bi horma mitikoetan–Aconcaguako Hego Horma (6.962m.) eta Sisha Pagma-ko hego-mendebaldeko horman (8.027m.)– estilo alpinoan egindako eskalada saioak eta Broad Peak-era egindako espedizioa ikusteko.

Azaroaren 11n Andoni Ormazabalen (Ekin zentroa) hitzaldia entzuteko aukera izango dugu, mendi-eskaladan gertatu ohi diren lesioak eta hauen prebentzio eta tratamenduen inguruan.

Azkenik, azaroaren 13an iazko Mendi Film Festival-en aurkeztutako lau pelikula ikusteko aukera egongo da.

EGITARAUA

AZAROAK 3 - 23
Argazki erakusketa
Aritz Gordo arrasatearraren argazkiak ikusgai kultur etxeko erakusketa aretoan. Astelehenetik igandera, 18:00-20:00.

AZAROAK 5 / 19:00
Red Bull X-Alps
Mendiko lasterketak eta parapentea uztartzen dituen munduko abentura lasterketa gogorrena, Mattin Iñiguezen eskutik.

AZAROAK 7 / 19:00
Aconcaguako Hego Horma eta Broad Peak
Josu Bereziartua alpinista azpeitiarraren emanaldiak bi horma mitikoetan estilo alpinoan eginiko eskalada saioen ingurukoak.

AZAROAK 11 / 19:00
Mendi-eskaladako lesioak saihestu
Andoni Ormazabal fisioterapeutaren hitzaldia eskaladan gertatu ohi diren lesioak nola saihestu azaltzeko.

AZAROAK 13 / 19:30
BBK Mendi Film Festival
Iazko Bilboko BBK Mendi Film Festival jaialdian aurkezturiko lau pelikula: 'Haize lerroak' (13'), 'Sounscape' (14'), 'The Ice Builders' (15'), eta 'Peligro. No asomarse' (48'). Prezioa, 5,50€.

MENDI FEDERATU KANPAINA

Aloña Mendiko Mendi sailak abian jarri du datorren urtera begirako federatu kanpaina. Aloña Mendiko ordezkariak azaroko 3 egunetan egongo dira elkarteko bulegoetan alta, baja edota aldaketak modu presentzialean tramitatzeko. Bestalde, aldaketak korreo elektronikoz egiteko aukera ere egongo da, urtero bezala.

AURREZ-AURRE:
Mendi saileko ordezkariak Aloña Mendi elkartearen bulegoan egongo dira **azaroaren 12, 18 eta 19an**, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara, federatu txartelaren altak, bajak eta aldaketak izapidetzeko

KORREO ELEKTRONIKOZ:
Federatu txartelean egin beharreko alta-baja edo aldaketak emailez ere egin ahal izango dira *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidera idatziz, **azaroaren 3tik 24ra**.

MENDI IRTEERA / Azaroak 16

OÑATIKO IBILBIDEAK

Jaturabe-Arantzazu-Katabera-Oñati

Aloña Mendik azarorako antolatu duen men irteera Oñati inguruetan izango da. Jaturabeko aparkalekutik Arrikrutzera igoko dira eta Gesaltzako baserrietatik Arantzazura. Duru, Malla, Eskista eta Kataberako putzutik Arriurdineko iturri ezkutura. Minetatik bueltan, Oñatin amaituko da (17km / +950 m. / 6-7 ordu. Ez du zailtasunik, baina gogorra da.

Irteera, goizeko 7,30etan, postetxe parean. Izena emateko epea: **azaroak 6-13** (alonamendi.mendi@gmail.com), autobusa bete arte. Prezioa: 5€ autobusean ordaintzeko.

Arriurdin iturria

AYESTARAN
ARAIKUNTZAK S.L.
Aita Lizarralde, 8-Behea / 943716454 / iayestaran.com
obra berria / eraberritzeak / etxebizitzen eraberritzeak / igogailuak / kota 'O' lanak / fatxada eta teilatuak

Etxegarai irabazle 'Hiru Hiriburuak' txapelketan

PILOTA Madalen Etxegarai oñatiarrak *Hiru Hiriburuak* torneoa irabazi du Enara Gaminderekin bikotea osatuz. Finalean 22-17 irabazi zieten Goiuri Zabaleta eta Nora Mendizabali. Orain, Master Cup-eko lau eta erdikoan eta DV torneoan arituko da. Gipuzkoako txapelketan ere badihardu Nora Mendizabalekin batera.

Malen Osa 4. GTWS-eko azken sailkapenean

TRAIL Trentinon (Italia) jokatu zen final nagusiaren ostean Malen Osak (Salomon) 4. postuan amaitu du Golden Trail World Series-eko azken sailkapenean, 849 punturekin, podiumetik 29 puntura. Finaleko atariko prologoan 6. sailkatu zen oñatiarra, eta hurrengo eguneko lasterketa nagusian 5.

Irizar eta Cueva podiumean

ZIKLO KROSA Sasoiko ekin diote gure txirrindulariek ziklo kros denboraldiari. Urriaren 25ean Tolosan jokatu zen Pablo Arsuaga memorialean, Euskadiko zirkuitorako proba puntuagaarria, Aimar Irizarrek (Ulma-Aloña Mendi) garaipena lortu zuen Kadete mailan, eta Unai Cueva (EKD Eibar) hirugarren helmugaratu zen Open kategorian.

20 urteren ostean, senior taldea berriz ere

SASKIBALOIA Hogei urteren ostean Lana-Aloña Mendi emakumeen senior mailako taldea osatu da. Gipuzkoako bigarren mailan lehiatuko da aurten, Jon Ander Ugartek gidatuta. Oraingoz, partidu bat irabazi eta bi galdu dituzte.

Emozioak

Musika bandaren kontzertu denboraldia aurkeztu dute

> Sei kontzertu eskainiko ditu, emozio mota ezberdinak gai hartuta

> Lehen emanaldia **azaroaren 16an** izango da **Santa Ana** antzokian (13:00). Gainerako kontzertuak Zubikoa pilotalekuan izango dira, ohi bezala

Aitor Biain, bandako zuzendaria, Jon Astigarraga, lehendakaria eta Iñaki Olalde, kultura zinegotzia, 2025/26 denboraldia aurkezten

Oñatiko Musika Bandak 2025/26 denboraldirako prestatu duen kontzertu denboraldi berria aurkeztu du. Ohi bezala, azaroan hasi eta maiatza bitartean kontzertu bat emango du hilero, abenduan izan ezik, hilabete horretan Gabonetako emanaldi berezia egoten baita, herriko abesbatzekin batera.

'Emozioak' da aurtengo denboraldirako hautatu duten leloa eta, hala, emozio mota ezberdinak jorratuko dituzte emanaldi bakoitzean: azaroan '***Emozio nostalgikoak***'; urtarrilean '***Vienako emozioak***'; otsailean '***Espazioko emozioak***'; martxoan '***Emozio txikiak***' (kontzertu pedagogikoa); apirilean '***Emozioak Zimerrekin***' (zinerako soinu banden sortzaile Hans Zimerren musikan oinarrituta); eta maiatzean '***Betiko emozioak***', abesti klasikoekin.

Bistan denez, estilo ezberdinetako musika eskainiko du aurten ere musika bandak, ahalik eta publiko gehienarengana iristeko asmoz. Aurten, gainera, berritasun modura, kontzertuetako esku-programetan doinu edo pieza bakoitzari buruzko azalpenak irakurri ahal izango dituzte entzuleek, musika hobeto ulertu, jarraitu eta gozatzeko.

Leire Odriozola (saxo tenorea) eta Aitor Murguzurrentzat (tuba) estreinaldi ofiziala izango da nagusien musika bandarekin

GONBIDATU BEREZIAK

Aurten ere herriko beste talde eta eragile batzuek ere parte hartuko dute musika bandaren emanaldietan, eta horietako bi berriak izango dira, gainera: ***Ostomilla txotxongilo taldea*** (martxoko kontzertuan) eta ***Maria Izaga*** abeslaria (maiatzean). Horiez gain, ohikoak diren herriko beste eragile batzuk ere ez dira faltako, hala nola: Musika Eskolako ikasleak, Oñatiko Banda Gaztea eta Gimnasia erritmikako taldea.

AZAROKO KONTZERTUA, SANTA ANA ANTZOKIAN

Denboraldiko lehen kontzertua azaroaren 15ean izango da. 'Emozio nostalgikoak' du izenburua, eta ibilbide emozionala proposatzen digu garai, geografia eta estilo ezberdinetan zehar. Ingalaterrako abesti tradizionalak ('*English folk song suite*'), Estatu Batuetako martxa nazionala ('*The stars and stripes forever*'), Erresuma Batuko martxa monarkikoa ('*Crown Imperial-Coronation March*'), eta Iliadaren mundu mitikora eramango gaituen '*Troiako azken egunak*' obra entzungo ditugu, besteak beste.

Gogoratu, kontzertua Santa Ana aretoan (13:00) izango dela, egun horretan Zubikoa pilotalekua hartuta dagoelako. Emanaldia dohainik da, baina gonbidapena hartu behar da Txokolateixan (aforoa ohi baino txikiagoa izango da, gainera, kontzertua Santa Anan izanik). Aurretik, 11:00etan kalejira egingo du musika bandak.

Oñatzek dantzan ospatuko du 55. URTEURRENA

Belaunaldi ezberdinetako berrehun bat dantzari bilduko dituen ikuskizuna eskainiko du azaroaren 15ean

Herriko plazan izango da emanaldia, eguerdiko 12etan

Bost urtean behin ekitaldi berezi bat antolatzeko ohitura dauka Oñatz Dantza Taldeak, urteurrenak ospatzearekin batera. Orain dela bost urtekoa are bereziagoa izan zen, urteurren borobila izan zelako, 50.a, pandemiak pittin bat baldintzatu bazuen ere.

Aurten 55 urte betetzen ditu herriko dantza taldeak, eta modu xumeagoan bada ere, herritarrekin batera ospatu nahi du urteurrena, dantza eginez, nola bestela. Belaunaldi ezberdinetako –gaztetxoak, nagusiak eta dantzari ohiak– 200 bat dantzari bilduko dituen ikuskizuna eskainiko dute azaroaren 15ean herriko plazan. Eguraldi txarra egiten badu, Zubikoa pilotalekuan izango da.

Euskal Herri osoko dantzak eskainiko dituzte, batzuetan taldeka, beste batzuetan denak batera, Foruen plaza kolorez eta folklorez beteko dutelarik.

'TXUTXIN' GOGOAN

Duela urte eta erdi zendu zen Jesus Irizar 'Txutxin' gogoratzeko tartea ere hartuko dute. Berrogeita hamabost urteren ondoren, ia 400 neska-mutil, haur, gazte eta heldu, biltzen dituen dantza talde sendoa baldin bada Oñatz, hein handi batean 'Txutxin'ek, beste batzuekin batera, egindako lanari esker da. Hark landutako oinarri sendo horrek bizirik dirau, eta egungo dantzariek nahiz dantzari ohiek aitortza egin nahi diote, beste behin ere.

HERRI-BAZKARIA ETA POTEO GIROTUA

Plazako emanaldiaren ondoren herri-bazkaria egongo da Zubikoa pilotalekuan –sarrerak Txokolateixan daude salgai–. Modu batera edo bestera Oñatzekin lotura duten herritar guztiak daude gonbidatuta. Eguna borobiltzeko, bazkalostean poteo girotua egingo dute.

'Oporretara goaz'

Pake-Lekuko antzerki taldeak obra berria estreinatuko du

Azaroaren 15ean, Santa Ana antzokian, 19:00etan

Pake-Leku elkarteko Ikusi-Makusi taldeak antzezlan berria estreinatuko du azaroaren 15ean, larunbata, Santa Ana antzokian, 19:00etan (5€). Bezperan, Pake-Lekuko bazki- deentzako emanaldia egingo dute Santa Ana aretoan (18:00) dohainik

Oporretara goaz du izenburua antzezlanak. Benidormera oporretarako bidaia prestatzen ari diren Sole, Luisa eta Hortensia lagunen gorabeherak kontatzen ditu. Bidaia berezia da, "senar" barik joatea erabaki dutelako, baina antolatze lanetan diharduten bitartean ezusteko handi batek plan guziak aldaraziko dizkie.

BESTELAKO EKITALDIAK. Azaroaren 15ean Olagarro eguna ('Pulpeiro') ospatuko dute Pake Lekun (errazioa 15€). Hilaren 20an bingo berezia egingo dute (17:00). Azaroaren 15ean Pozalaguara joango dira, eta 26an Gaztaina-jana (18:30) izango dute.

EGUR-LAN
AROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

ARKITEKTURA
Baserriak ✷ Teilatuak ✷ Fatxadak ✷ Igogailuak
Bidebarrieta 13. Oñati ✷ tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com

OÑATIKO 47.

Musikegunak

Azaroko igandeetan goi mailako kontzertuez gozatzeko aukera izango dugu. Lau emanaldietarako bonoa (22€) eskura daiteke.

Garikoitz Mendizabal eta **Gorka Hermosa**. 'Sustraien matxinada'.

> AZAROAK 9, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:00

Garikoitz Mendizabal txistulari zestoarrak eta Gorka Hermosa akordeoilari urretxuarrak elkarrekin ondutako 'Sustraien matxinada' diskoa aurkeztuko dute. Mendizabalek urteak daramatza txistuaren soinuekin bide abangoardistak urratzen, eta Hermosa, bestalde, nazioarteko hainbat sari jasotakoa da eta bere konposizioak munduko hainbat herrialdetako orkestrek jotzen dituzte.

Sustraien matxinada diskoan Hermosak konposatutako hamaika abesti grabatu dituzte. Folkloretik abiatuta, jazzaren askatasuna eta inprobisazioa, eta musika klasikoaren prozesu konpositiboak fusionatzen dituzte. Tradizioa eta modernitatea uztartzen dute. Biek ala biek iraultza eragin dute euren instrumentuetan azken urteotan, txistu eta akordeoiaren nazioarteko erreferentzia bihurtuz.

Eñaut Zubizarreta 'Trigger'. 'Doodem'

> AZAROAK 16, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:00

Eñaut Zubizarreta 'Trigger' musikari atxabaltarrak *Doodem* izeneko lana aurkeztuko du. Zubizarretak 25 urte luze daramatza txeloa altzoan hartuta. Ikasketa klasikoak egin zituen, baina azken urteetan musika tresna honekin bide berriak urratuz joan da. *Doodem* lanean folk musika hartu du oinarri. Baina folklorikotasunetik urrun dagoen proposamena da. Zazpi kanta biltzen dituen lan berria bidaia musikal bat da, Moru-k Senegaletik Euskal Herrira egindako bidea kontatzen da. Tokian tokiko berezitasun musikalak hartu eta, zenbait unetan Mbira, Kora edo gitarra flamenko bat entzuten ari garela pentsarazten digu. Melodiak janzteko Iñigo Xalbador saxofoi-jolea ariko da, eta Amaia Luluaga dantzariak ere parte hartuko du musika gorpuztuz, eta Oihana Iguaranen poesia narratiboak entzun eta ikusitakoari testuingurua jarriko diote.

OÑATIKO 47. MUSIKEGUNAK / **Egitaraua**

- **Azaroak 9 / Santa Ana antzokia, 19:00**
Garikoitz Mendizabal eta Gorka Hermosa: 'Sustraien matxinada'
- **Azaroak 16 / Santa Ana antzokia, 19:00**
Eñaut Zubizarreta Mendieta: 'Doodem'
- **Azaroak 23 / Santa Ana antzokia, 19:00**
Tanguedia Ensemble: 'Astor Piazzolla badoneoista era konpositoreari omenaldia'
- **Azaroak 30 / Santa Ana antzokia, 19:00**
EntreQuatre gitarra laukotea: 'Ibilbide'

MUSIKEGUNAK BONOA

Musikegunetako kontzertuetako sarrera arruntak 7€ balio du, baina lau emanaldietarako bonoa eskura daiteke 22 eurotan, www.oñati.eus atarian eta Txokolateixan. Kontzertuak Santa Anan izango dira, 19:00etan

Tanguedia Ensemble. 'Astor Piazzolla konpositore argentinarrari omenaldia'

> AZAROAK 23, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:00

Tango argentinarraren figura entzutetsuenetako bat izan zen Astor Piazzolla (1921-1992). Jakinduria handiko pertsona izan zen, bai kultura mailan eta baita teoria musikalean ere, eta horrek eraman zuen tangoa berritzera eta estilizatzera. Hasieran bere proposamenak talka egin zuen sektore tradizionalekin, baina, poliki poliki, zine zuzendari, ballet konpainia, jazz eta rock musikari, eta garaiko intelektualen goraipamenak jaso zituen, arrakastaren gailurrean jartzeraino.

Tanguedia Ensemble taldea Piazzola handiari merezitako omenaldia eskaintzeko sortutako taldea da, goi mailako lau musikariz osatua: Ivan Casado (biolontxeloa), Joana Otxoa de Alaiza (pianoa), Naiara de la Puente (akordoia) eta Victor Parra (biolina). Piazzolaren obra ospetsuenetako batzuk joko dituzte (*Soledad*, *Milonga del ángel*, *Estaciones porteñas*...).

EntreQuatre gitarra laukotea. 'Ibilbide'

> AZAROAK 30, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:00

1984an Asturiasen sortutako gitarra laukotea da EntreQuatre eta beraien esparruan mundu mailako hiru talde onenen artean dago. Estatu Batuetan, bereziki, baina, oro har, Iberoamerika osoan arrakasta handia izan dute beti, eta hemen, estatu mailan, 2009an iritsi zitzaien errekonozimendua, Grammy Latinoetarako izendapenarekin batera.

Ehundik gora obra konposatu dituzte, 40tik gora herrialdetan eman dituzte kontzertuak eta hainbat kontzertu sinfonikotan jo izan dute bakarlari gisa. Oñatiko kontzertuan musikagile latinoamerikar ezberdinen piezak joko dituzte, eta baita Aita Madina oñatiarrarenak ere, hala nola: *Danza Rapsódica*, *Cuarteto Nº1*, *Basque Sonata* eta *Lullaby*. Gogoratu, Madinak gitarra-laukoterako hainbat obra konposatu zituela, batez ere Estatu Batuetan *Los Romero* laukote mitikoa ezagutu ostean.

Gezalaga Margoak
Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Catalana Occidente
Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak
Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:
Heriotza · Istripuak · Etxebizitza
Autoak · Ontziak · Aurrezkia
Bizitza · Osasuna · Laborantza
Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanoccidente.com



'Casarse por papeles es... verdadero amor'

Emakume migratuen errealitateaz gogoeta egitera gonbidatzen duen antzerki-kabareta

Udaleko Berdintasun sailak antolatuta, Emakumeentzako Jabetze Eskolaren baitan, *Colectiva Caguama & Colectivo Amapolas Nicaragua* taldearen ***Casarse por papeles es... verdadero amor*** antzerki-kabaretaz gozatzeko aukera izango dugu **azaroaren 28an**, Santa ana antzokian, 19:30etan.

Antzezlan honek, besteak beste, emakume migratuek zaintza lanetan bizitzen dituzten kalapitez eta gora-beherez gogoeta egitera gonbidatzen gaitu. Kolonialitateak, arrazismoak eta klasismoak, besteak beste, hainbat emakumeren bizitzatan duen eraginaz ere badihardu.

Gai horiei guztiei umoretik heltzeko saiakera ederra egiten du antzezlanak, kabaret formatuan, barrerako eta gogoetarako uneak tartekatuz, haus-narketa eta gozamena uztartuz.

Nikaraguako jazarpen politikotik ihesi,

Bartzelonan Montse izeneko andere bat zaintzen lan egiten duen Panchitaren bizipen eta gorabeherak kontatzen ditu. Ikuskizun guztian zehar zuzeneko musika izango du lagun Panchitak, bere unibertso emozionalerako ihesbide gisa.

'Casarse por papeles...' antzezlana sare afektiboen indarraz mintzo zaigu, sormenaz –biziraupenerako arma gisa–, samurtasunaz eta errebeldiaz,

Burrunda Faktoriak urte bukaera arteko egitaraua atera du

Estilo ezberdinetako lau kontzertu eta magia ikuskizun bat programatu dituzte

Itzal magoak azaroaren 9an eskainiko du bere ikuskizuna Gaztetxean, 17:30etan

Burrunda Faktoria Kultur Elkarteak urte bukaera arteko (urritik abendura) prestatu duen egitaraua plazaratu du. "Oraingoan ere, egitarau askotarikoa prestatzen saiatu gara, ahalik eta jende gehienarentzat izan dadin gustuko zeozer", adierazi dute taldeko kideek.

Urriaren 25ean izan zen aurreneko kontzertua ***Dena*** eta ***Ro*** taldeen eskutik, eta hil honetarako beste hiru ekitaldi iragartzen dira. Hala, azaroaren 9an ***Itzal Magoa***ren magia eta antzerki ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu Antixena gaztetxean (17:30), Hilaren 16an ***Nhil*** (pop-funk) eta ***Gar*** (pop landua) taldeen kontzertua egongo da, Gaztetxean, 18:00etan, eta azaroaren 30ean ***Moxal***, ***Miren Narbaiza*** eta ***Inner*** taldeak ariko dira, 18:00etan. Abenduaren 20an izango da azken kontzertua, ***Sermond's***, eta ***Chuleria, Joder!*** taldeen eskutik (19:00).

Ohi bezala, denboraldiko bonuak jarri dituzte salgai 25€tan (murriztuak, 10€). Bonua dutenek kontzertu guztietarako sarrera ziurtatuta izango dute, eta sarrerak banaka erosita baino merkeago aterako zaizkie.

PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Ultzegin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

ARANBURU
ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73
ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

(*) Itten: arrastua, pistia

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (VIII)

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna (I)

✍ ROBERTO ALTUNA

BIZITZAKO GORABEHERAK

Graziano Anduaga jauna 1877xan jaixo zan, abenduaren 18xan, Arantzazu auzoko Gesaltza baserrixan. Etxeko semerik zaharrena zanez, bera geldittu zan baserrixan. Ume denporan Uribarri auzoko eskolan ikasi eben irakurten, eskribitten eta lau erreglak egitten. Eta eztago esan biharrik, Kristau Dotriñia ikasi ebela be bai. Galarraga, maisu famaua, izan zan eskolako gaixak erakutsi otsana.

1905ian ezkondu zan Estefania Arregirekin. Hiru seme-alaba izan zittuain. Nekazaritza eta baserri-lana izan zan betik Grazianoren ogibidia. Berrogeita hiru urtian ibilli zan goizero-goizero Arantzazuko fraidien Kolejixoko mutikuendako esnia eruaten armozurako, urte askuan zaldixa, eta, azkenetan, astua lagun ebela. Eguraldi ona zein txarra egin, bost kilometroko fan-etorrixa egin bihar izaten eben horretarako, bere etxetik komentura eta buelta. Auzoko alkate be luzaruan izan zan.

Gesaltzako aittona, aitta Pedro Anasagasti *Arantzazu* errebistiaren zuzendarixarekin. Hau izan zan gure bertsolarixaren azkenengo erretratua, 1963ko urrixaren 12xan Arantzazun etaratakua

BERTSOLARIXA

Gazte-gaztetatik agertu eben Grazianok bertsotarako gogua eta trebetasuna. 1902 aldera etara zittuan bere lehenengo bertsuak, Oñatiko inprenta batian inprimauak. Inprentero harek Raldua eukan izena. Graziano bera eta Arrikruzko beste lagun bat ibilli ziran Oñatin kalez kale, bata bertsuak kantaitten eta bestia bertso-papelak saltzen. Hori izan zan gure bertsolarixaren estreiñaldixa. Bertso hareingatik bekozko batzuk ikusi bihar izan zittuan, baiña horregatik etzan kikilddu. Alrebes, geruago eta beruago sartu zan bertso-bidian.

Bere bizitza luzian zihar egin zittuan bertso guztiak kontaitterik eztago. Batzuk bertso-papeletan inprentauak agertu ziran, beste mordo bat Arantzazuko errebistan; Goiz-Argi-n be bai beste batzuk; Euskaltzaindiko agerkarixan be badago bat (Ikusi "Euskera" 1956). Beste asko etziran sekula argittaratu. Bat-bateko bertsuak egitten be baekixen, jakiña, baiña berak gurago eben bere bertso-lana soseguz eta politto egin.

Baserri kontuak eukan betik goguan. Umetan ikasittako eskolia be ez eben alperrik euki. Betik izan eben irakurteko zaletasuna eta gogua. Eskribiu, berriz, letra apain eta garbi askuarekin egin ohi eben. Ittoian edo soruan edo ohian, horretarako eria hartzen ebenian, asmautako bertsuak zintzo-zintzo jasoko zittuan gero papelera.

LIBURUAK

Aitta Luis Villasantek '***Aitonaren Uzta***' izeneko liburua argittaratu eben 1961ian Itxaropena argitaletxiarekin, Anduagaren beraren ahotik hainbat ipuin eta gertaera interesgarri jasota. Ondoren, berriz be, aitta Villasantek batutako bertsuakin Aitta Antonio Zavalak beste bi liburuki argittaratu zittuan Auspoa bilduman, '***Egunsentiko txoria eta beste bertso asko***', 1963an, eta '***Bertso-bilduma***' (1965). Azkenik, Ander Lizarralde oñatiarrak '***Graziano, eta beste...***' liburua argittaratu eben 2021ian.

Itturrixa: Aitta Villasanteren 'Gesaltzako aitonari azken agurra' artikulua. Arantzazu errebistia, 1965eko apirilla, 426. zenb. (moldautakua)

AGENDA

ANTZERKIA

AZAROAK 15 / 19:00
'Oporretara goaz'
Pake Lekuko Ikusi-Makusi taldearen antzezlan berria Santa Ana antzokia.

AZAROAK 28 / 19:30
'Casarse por papeles es... verdadero amor'
Antzerki-kabareta Santa Ana antzokia.

DANTZA IKUSKIZUNA

AZAROAK 15 / 12:00
Oñatz dantza taldearen 55. urteurrena
Dantza ikuskizuna. Herriko plazan.

ERAKUSKETA

URTE AMAIERA ARTE
Esteban Kerexetaren eskulturak
'Gerra' izenburupean egindako eskulturak ikusgai daude. Altuna estankoan.

HITZALDIAK

AZAROAK 15 / 17:30
'Mikologiaren sustraietara: Mikopoteoa argitzen Mikorrizen itzaletik'
Hizlaria: Esti Sarrionandia, EHUko Mikologia aditua. Gandiaga topagunean

AZAROAK 21 / 18:00
'Euskal gatazka ikuspegi feministatik'
Hizlaria: Olatz Dañobeitia. Zine aretoan

IKUS-ENTZUNEZKOAK

AZAROAK 7 / 19:00
'Aconcagua hego-horma & Broad Peak'
Josu Bereziartua alpinistaren eskutik. Zine aretoan

AZAROAK 11 / 19:00
'Mendi eskaladako lesioak saihestu'
Andoni Ormazabal fisioterapeutaren eskutik. Zine aretoan

MUSIKA

AZAROAK 7 / 22:00
Sukena + Indabe
Gaztelekuan.

AZAROAK 9 / 19:00
Garikoitz Mendizabal eta Gorka Hermosa
Txistua eta akordeoia. Santa Ana aretoan.

AZAROAK 12 / 19:30
Aria Taldea
Pop musika talde donostiarra. Jatekoa eta edariak egongo dira. Eltziako topagunean.

AZAROAK 16 / 13:00
Oñatiko Musika banda
'Emozio nostalgikoak'. Santa Ana aretoan.

AZAROAK 16 / 18:00
Nhil + Gar
Pop eta funk doinuak. Gaztetxean.

AZAROAK 16 / 19:00
Eñaut Zubizarreta 'Trigger'
Folk musika. Santa Ana aretoan.

AZAROAK 23 / 19:00
Tanguedia Ensamble
Astor Piazzolaren omenez. Santa Anan.

AZAROAK 30 / 18:00
Moxal + Miren Narbauiza + Inner
Gaztetxean.

AZAROAK 30 / 19:00
EntreQuatre
Gitarra laukotea. Santa Ana aretoan.



Oñatiko Trikiti Jaialdia

Azaroak 22, Santa Ana, 17:00

Lizargarate elkarteak antolatuta, Oñatiko XVII. Trikiti Jaialdia ospatuko da azaroaren 22an, Santa Ana antzokian (17:00). Hogei bat trikitilarik parte hartuko dute bikoteka edota taldeka, tartean Iparraldeko Larre Alde Trikitilariak. Jaialdirako sarrerak (12,5€) Txokolateixan eta udalaren webgunean (www.oñati.eus) daude eskuragarri. Ondoren, gaueko 21:30etan afaria egongo da Txopekua jatetxean. Tiketak (25,5€) Oñatiko udalaren webgunean egongo dira salgai azaroaren 3tik aurrera.



'Ai Gure Juaneteak!'

Laboaren kantak gaur egungo gizabere baten ikuspuntutik

Patxo Telleriaren antzezlan berria

Abenduaren 1ean, Santa Ana antzokian (19:00)

'Ai Gure Juaneteak!' ikuskizun eszeniko hibridoa da. Hitzek eta musikak osaturikoa. Aktore-musikari bat eta bi musikari-aktore ikusiko ditugu oholtzan. "Testua, Laboaren zenbait kantaren letren berrinterpretazio erabaktekoa da, gaur egungo neure ikuspuntutik", azaltzen du Telleriak. Izarren hautsa, Negu hurbila, Lili bat, Haika mutiil... Jatorrizko kanten zati laburrak kantatuko dituzte tarteka, baina, batez ere, kanta bakoitzaren ikuspuntu berriak eskainiko dituzte. Hitzaren eta musikaren ikuspuntu berriak

TAILERRA

Azaroak 11, 18 eta 25, eta abenduak 2 eta 9
Mindfulness eta erlaxazioa
Dohainik, 18:30-20:00. Izen-ematea: 687 752 842. Euskaldun Berria gelan

TERTULIXAN

URRIAK 18 / 18:00
Joxe Azurmendiren omenez
Udal liburutegiko euskarazko Tertulixan saioan uztailaren 1ean zendu zen Joxe Azurmendi filosofo eta idazleari omenalditxoa egingo diote. Udal liburutegian

ZINEA

AZAROAK 13 / 19:30
MENDI FILM FESTIVAL
Bilboko Mendi Film jaialdian aurkeztutako lau laburmetrai ikusgai. Zine aretaoan

'Doinuen irria'
Haurrentzako ipuinak, azaroaren 20an

Udal liburutegiak antolatzen duen Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan Lur Usabiagaren 'Doinuen irria' haurrentzako ipuin kontaketa saioa egongo da azaroaren 20an, Haur liburutegian. Ipuin motzak, haur kantak, olerkiak eta esku-jokoak uztartzen dituen saioa. Ordu erdiko bi saio egongo dira: 17:00etan 2-3 urtekoentzat (HH2-HH3) eta 18:00etan 4-5 urtekoentzat (HH4-HH5). Gonbidapenak azaroaren 10etik aurrera.

Oñatiko XVI. Laburmetrai Rallya
Azaroaren 8an

Azaroaren 8an egingo da aurten Oñatiko Laburmetrai Rallya, Oñatiko Gaztelekuan 2010az geroztik ospatzen den lehiaketa, euskara eta zinea uztartuz. Hilaren 3an irekiko da izen-ematea, eta lehen 20 taldeak soilik onartuko dira. Taldeek 11 ordu izango dituzte antolakuntzak egunean bertan emandako gaia/generoa eta objetua landuz beraien laburmetraia ontzeko, Oñatiko herriko txoko ezberdinak plato erraldoi bihurtuz. Informazioa: ***olr.antolakuntza@gmail.com***

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)
Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Azaroak 6 - 10

ZINE KLUBA:
MI AMIGA EVA
(VOSE)
NAGUSIAK:
UN SIMPLE ACCIDENTE (*)
GAZTETXOAK:
COLEGIO DE LOS ANIMALES MÁGICOS

(*) Cannes-eko zinemaldiko film onena

Azaroak 13 - 17

ZINE KLUBA:
MENDITOUR
(4 LABURMETRAI)
NAGUSIAK:
LOS DOMINGOS (*)
GAZTETXOAK:
BARRAKUDAREN ALTXORRA

(*) Donostiako Zinemaldiko urrezko maskorra. Astelehen gauean emanaldi berezia.

Azaroak 20 - 24

ZINE KLUBA:
ON FALLING (VOSE)
NAGUSIAK:
LA CENA
GAZTETXOAK:
TOM Y JERRY, AVENTURA EN EL TIEMPO

Azaroak 27 - Abenduak 1

ZINE KLUBA:
BLACK DOG
(VOSE)
NAGUSIAK:
GAUA
GAZTETXOAK:
SUPERCHARLIE

(*) Astelehen gauean emanaldi berezia.

FARMAZIA

ANDUAGA
San Lorentzo 3 /☏ 943 78 21 16
Azaroak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27. Abenduak 5, 6 eta 7.

IGARTUA
Kale Zaharra 1/ ☏ 943 78 01 22
Azaroak 1, 2, 10, 11, 19, 20, 28, 29 eta 30. Abenduak 9.

GARATE
Kale Barria 42/☏ 943 78 05 58
Azaroak 3, 4, 12, 13, 21, 22 eta 23. Abenduak 1 eta 2.

ULDAIN
Kale Barria 6 /☏ 943 78 11 28
Azaroak 5, 6, 14, 15, 16, 24 eta 25. Abenduak 3 eta 4.

ODOL ATERALDIA

AZAROAK 21 / 16:30-20:30
MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, **https://gotatanta.eus** atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

LURSAIL BILA nabil ganaduarentzat. Deitu: 656 391 607

UMEAK ZAINDU Oñatiko neska, arduratsua eta atsegina, umeak zaindu edo eskolara eramateko prest, eta adineko pertsonei konpainia egiteko eta paseora ateratzeko prest. Interesatuek deitu: 695 738 795

BASERRIA erosi edo alokatu nahiko nuke: 620 710 109.

SITSA OPARI Ardi sitsa doan eskaintzan da Gomiztegi baserrian. Norberak joan behar du jasotzera 688 689 725.

MERKATU TXIKIA
ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

Coinbroker

EUSKADI

Osasun aseguru on baten bila zabiltza?

MAPFRE

DKV

Sanitas

IMQ

Zure beharretara egokitzen den asegurua aukeratzen lagunduko dizugu!

Coinbroker EUSKADI

C/ Arantzazuko Ama, 9
20560 Oñati-Gipuzkoa

943 089006
coinbroker.eus
oinati@coinbroker.eus